

2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA

2022KO JARRAIPEN-TXOSTENA

2023/05/18



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Aurkibidea

1. SARRERA	3
1.1. AURKEZPENA	4
1.2. JARRAIPENAREN METODOLOGIA	5
1.3. 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA.....	6
2. 2022KO EMAITZA NAGUSIAK.....	9
2.1. GAUZATZE-MAILA OROKORRA.....	10
2.1.1. Gauzatze-maila orokorra	10
2.1.2. Gauzatze-maila jarduera-eremuen arabera	12
2.1.3. Gauzatze-maila ildo estrategikoen arabera.....	14
2.2. GAUZATZE-MAILA, JARDUERA-EREMUEN ETA ILDO	
ESTRATEGIKOEN ARABERA	15
2.2.1. 1. jarduera-eremua: Enplegua berreskuratzea, mantentzea eta sortzea	15
2.2.2. 2. jarduera-eremua: Enpleguaren kalitatea	18
2.2.3. 3. jarduera eremua: Enplegua eta prestakuntza 3 trantsizioetan: digitala,	
energetiko-klimatikoa eta demografikoa	20
2.2.4. 4. jarduera eremua: Enplegu eta prestakuntza erresiliente eta inklusiboa.....	22
2.2.5. 5. jarduera-eremua: Enplegurako prestakuntzarako euskal eredia.....	24
2.2.6. 6. jarduera-eremua: Lanbide hobetzen	26
2.2.7. 7. jarduera eremua: Enplegu-politika aktiboen ikerketa, berrikuntza eta	
ebaluazioa	27
2.2.8. 8. jarduera eremua: Euskal Enplegu Sistemaren Legea	28
2.2.9. Zeharkako eremua: Aukera berdintasuna lan-merkatuan	28
2.3. HELBURUEN BETETZE-MAILA.....	32
2.3.1. Helburu orokorrak: 2022ko gauzatze-adierazleak.....	32
2.3.2. Inpaktu-adierazleen aurrerapena	41
2.4. AURREKONTUAREN GAUZATZE-MAILA	42
3. BALORAZIO OROKORRA.....	44
A. Eranskina 2022AN GARATUTAKO EKINTZEN IKUSPEGI	
 XEHATUA.....	47
A.1. 1. JARDUERA-EREMUA: ENPLEGUA BERRESKURATZEA, MANTENTZEA	
ETA SORTZEA	48
A.2. 2. JARDUERA-EREMUA: ENPLEGUAREN KALITATEA	58
A.3. 3. JARDUERA-EREMUA: ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA HIRU	
TRANSIZIOETAN: DIGITALA, ENERGETIKO-KLIMATIKOA ETA	
DEMOGRAFIKOA.....	64
A.4. 4. JARDUERA-EREMUA: ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE	
ETA INKLUSIBOA.....	70

Aurkibidea

A.5.	5. JARDUERA-EREMUA: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL EREDUA.....	77
A.6.	6. JARDUERA-EREMUA: LANBIDE HOBETZEN	80
A.7.	7. JARDUERA-EREMUA: ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA	82
A.8.	8. JARDUERA-EREMUA: EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	83
B.	Eranskina JARDUERA-EREMUEN ARABERAKO HELBURUAK.....	84
B.1.	JARDUERA-EREMUEN ARABERAKO HELBURUAK: GAUZATZE-ADIERAZLEAK.....	85



1.

SARRERA

1. Sarrera

1.1. AURKEZPENA

Txosten honen helburua da Enpleguaren Plan Estrategikoaren indarraldiko lehen urteko jarduketaren jarraipena egitea, 2022an. Aztertu diren alderdiak jarduketaren gauzatze-egoera, ezarritako helburuen betetze-maila eta gauzatutako finantza-gastua izan dira.

2021-2024 aldirako ezarritako helburu estrategikoen betetze-maila aztertu nahi da.

2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoaren **XEDEA** da EEE 2030en helburuak operatibizatzea, pandemiaren ostean bultzada sozioekonomikoa emateko, hiru trantsizioak (digitala, energetiko-klimatikoa eta demografikoa) ezartzeko eta sustatzeko:

ENPLEGU INKLUSIBOA ETA KALITATEZKOA KONTRATU SOZIAL BERRI BATERAKO

Gure ustez, erronka nagusia enplegu gehiago sortzea izateaz gain, kalitatezkoa eta pertsona guztien gizarteratze eta laneratze osoa ahalbidetuko duten baldintzetan izatea da. Helburua da gizarte-eragileen arteko beharrezko orekak lortzea, helburu hori posible izan dadin ekonomia lehiakor eta globalizatu batean. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, bere erantzukizunaz baliatuz, enplegu publikoaren arloan jarduera egokiak garatu beharko ditu, bere araugintza-jardueran eta haren zaintzan, diru-laguntzen politiketan, klausula sozialak lan-merkatu osoari dagokionez.

Txostenak 3 kapitulu ditu.

Sarrerako kapitulu honen ondoren, zeinak erabilitako jarraipen-metodologia eta egindako azterketa-prozesua zehazten baititu, 2. kapituluak 2022ko jarraipenaren emaitza nagusiak aurkezten ditu. Zehazki, honako hauek jasotzen ditu:

- Gauzatutako jarduketaren bolumenari eta aurreikusitako jarduketekiko betetze-mailari buruzko informazio orokorra. 2022an egindako jarduketa nagusiak aipatzen dira.
- Helburuen betetze-mailari buruzko azterketa orokorra eta jarduera-eremuka, eta jarraipena egiteko ezarritako eragin-adierazleetan aurrera egitea.
- 2022an gauzatutako aurrekontuaren azterketa xehatua 2021-2024 Enplegu Planean jasotako jarduketei dagokienez.

3. kapituluak jarduketaren gauzatze-egoeraren, ezarritako helburuen betetze-mailaren eta gauzatutako finantza-gastuaren balorazio orokorra aurkezten du.

Azkenik, eranskin oso bat gehitzen da, Enplegu Plan Estrategikoan jasotako jarduketaren egoeraren xehetasunarekin, eta beste eranskin bat gauzatze-adierazleetan ezarritako helburuen betetze-mailari dagokionez.

1. Sarrera

1.2. JARRAIPENAREN METODOLOGIA

Azterketa honen helburu orokorra da 2022an egindako Enplegu Plan Estrategikoaren jarduketaren garapenean izandako aurrerapen-maila baloratzea, gauzatze-maila, lortu nahi diren helburuak eta egindako aurrekontuen gauzatzea kontuan hartuta.

Aurkeztutako informazioa 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoan jasotako jarduerak gauzatzeko ardura duten zuzendaritzek eman dute.

Zehazki, ebaluazio honek honako helburu hauek ditu:

- Jarduketa guztien gauzatze-maila ezagutzea.
- Ezarritako helburuen eraginkortasun- eta betetze-maila ezagutzea.
- Aurrekontuaren gauzatze-maila ezagutzea, eta hasiera batean aurreikusitako aurrekontuarekiko desbideratzeak egon daitezkeela ikustea.

Jarduketaren jarraipena egiteko erabili diren balorazio-irizpideak honako hauek izan dira:

- **Jarduketaren gauzatzearen balorazioa:** Planean jasotako jarduketaren kuantifikazio eta deskribapen xehatua egiten da, ildo estrategikoen araberako informazioa barne, eta programatutako jarduketaren gauzatze-maila kalkulatu da.

Gauzatze-maila (Egindako jarduketaren % programatutako jarduketa guztiekiko)		
Altua	% 80tik gora	●
Ertaina	% 70 eta % 80 artean	●
Baxua	% 70etik beherakoa	●

- **Eraginkortasunaren balorazioa:** lortutako helburuei buruzko informazioa jasotzen da, eta hasieran ezarritako helburuekiko betetze-maila kalkulatu da.

Eraginkortasun-maila (Ezarritako helburuaren betetze-mailaren ehuneko)		
Altua	% 80tik gora	●
Ertaina	% 70 eta % 80 artean	●
Baxua	% 70etik beherakoa	●

- **Aurrekontuaren gauzatzearen balorazioa:** baliabide ekonomikoaren azterketa zehatza egiten da programatutakoari dagokionez, desbideratzeak identifikatu ahal izateko. Eta 2022ko egikaritze-maila ere neurtzen da, Planaren aldi osorako aurreikuspenaren gainean (2021-2024).

Aurrekontuaren Gauzatze-maila (Egindako jarduketaren % programatutako jarduketa guztiekiko)		
Altua	% 80tik gora	●
Ertaina	% 70 eta % 80 artean	●
Baxua	% 70etik beherakoa	●

1. Sarrera

1.3. 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA

2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa **16 helburu estrategikotan eta 29 helburu operatibotan** zehazten da.

ENPLEGU-PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Pandemia osteko aldiari **enpleguaren hazkundera bultzatzea**, sortutako krisian galdutako enplegua berreskuratuz, dagoen **enplegua sendotuz** eta **enplegu berria sortuz**.
2. **Pertsona guztiarentzako kalitatezko lana ziurtatzen laguntzea**, behin-behinekotasuna, nahi ez den partzialtasuna eta, oro har, enplegu prekarioko eta lan-baldintza txarreko egoera guztiak murriztuz.
3. **Euskal ekonomiaren eraldaketa digitala, energetiko-klamatikoa eta soziodemografikoa erraztea**, sortutako diren enplegu-aukerak aprobetxatzea ahalbidetuko duen biztanleria aktiboaren prestakuntza eta kualifikazio egokiaren bidez, produkzio-sektorearen beharrei erantzunez.
4. **Gazteak lan-merkatuan sar daitezela sustatzea**, gazteen langabezia-mailak murriztuz eta lan-baldintza egokiak ahalbidetuz.
5. **Iraupen luzeko langabeziari aurre egitea**, bereziki eragindako kolektiboan (45 urtetik gorakoak, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenak, etorkinak, etab.) langabeziaren kronifikazioa saihestuz, gizarte-politikarekin lankidetzan estuan.
6. **Langabeziari eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko babes-mekanismoak** indartzea.
7. **Emakumearen presentzia sustatzea lan-merkatuan**, genero-arrakala ezabatuz, bai soldadari, bai okupazioari, enpleguaren kalitateari eta abarri dagokienez.
8. **Biztanleria aktiboaren kualifikazioa** sustatzea, lan-merkatuaren premiekin bat etorritik, bai landunentzat, bai langabeziaren daudenentzat.
9. **Biztanleria aktiboaren zahartze-prozesua kudeatzea**, adin handieneko pertsonen lan-jarduera egokitzeko laguntzeko, garatutako zereginari, lan-osasunari, etengabeko prestakuntzari eta abarri dagokienez, belaunaldi-erreleboaren prozesua eta gazteen laneratzea ahalbidetuz.
10. **Bizialdi osoko zaintza-zerbitzuen profesionalizazioa hobetzea**, prestakuntza-programa berritzaileen eta laneratze-programen bidez.
11. **Ekintzaitza, autoenplegua eta gizarte-ekonomia babestea**, langabeziako egoera ugariaren konponbidea eraginpeko pertsonen beraiek negozioak eta enpresa txikiak sortzeko ekimenak garatzea izan baitaiteke.
12. **Enplegu-zerbitzu publikoaren eraginkortasuna optimizatzea**, Lanbide Hobetzen eta enplegu-politika aktiboaren etengabeko berrikuntzaren bidez.
13. **Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea onartzea**, prestazio ekonomikoaren estaldura eta eskuragarritasuna hobetzeko eta zailtasunak dituzten euskal herritarrei kalitatezko gizarte- eta enplegu-zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko.
14. **Enplegu-politika aktiboaren** eta langabezia-egoeretatik, pobreziazatik eta/edo gizarte-bazterketatik **babesteko mekanismoen arteko koordinazioa** hobetzea.
15. **Euskal Enplegu Sistemaren Legea onartzea**, enplegu-politika aktiboetarako eskubide subjektiboa bermatuko duen esparru gisa, bai eta enplegu-politikan inplikaturako eragile guztien gobernantza, lerrokatze eta koordinazio ezin hobearen ere.
16. **Sailen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren kultura** bultzatzea, eta, etorkizuneari, **erakundearen arteko koordinazioa**, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa lortzen laguntzeko.

1. Sarrera

JARDUERA-EREMUAK	HELBURU OPERATIBOAK
1. ENPLEGUA BERRESKURATzea, MANTENTZEA ETA SORTZEA	1. Enplegua berreskuratzea, sortzea eta/edo mantentzea sustatzea.
	2. Enpresak berreskuratu, sortu eta/edo finkatzeko laguntza.
	3. Langabezia tasa murrizten laguntzea pandemia aurreko tasa hobetuz.
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	4. Biztanleria landunaren behin-behinekotasun-tasa murrizten laguntzea.
	5. Enplegu publikoaren behin-behinekotasun-tasa murrizten laguntzea.
	6. Biztanleria landunaren nahi gabeko partzialtasun-tasa murrizten laguntzea.
	7. Gizonen eta emakumeen lan-istripu hilgarrien eta lanbide-gaixotasunen intzidentzia-tasa murrizten laguntzea.
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTSIZIOETAN: DIGITALA, ENERGETIKO-KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	8. Negoziazio kolektiboko estaldura duten langileen ehunekoa handitzen laguntzea
	9. Hiru trantsizioei lotutako edo haiei bideratutako langabeen eta langileen lanbide-gaitasunak hobetzea.
	10. Zaintzen sektorean diharduten pertsonen lanbide-gaikuntza sustatzea.
	11. Gazteen kontratazioa sustatzea, sektore pribatuan txanda-kontratuak eginez.
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	12. Euskal enpresetan adina ordeztako eta kudeatzeko proiektu pilotuak garatzea.
	13. Bazterkeria-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden kolektibo kalteberentzako enplegu- eta prestakuntza-programak garatzea.
	14. Kualifikazio txikiko pertsonentzako prestakuntza- eta enplegu-programak garatzea, sektore tradizionaletan, funtsezkoetan edo sortzen ari direnetan.
	15. GDSBESren lege berria ezartzea.
	16. Langabeen enplegarritasuna hobetzea, orientazio-, aktibazio-, prestakuntza- eta trebakuntza-programen eta laneratzeari laguntzeko jardueren bidez.
5. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-RAKO EUSKAL EREDUA	17. Enplegatuen lanbide-gaitasunen birkualifikazioa edo egokitzapena hobetzea bilakaeran dagoen lan-ingurunera.
	18. Informazio- eta prospektiba-sistemak hobetzea, enpresen enplegu-eskaera edo birkualifikazioa langabeen edo enplegatuen gaitasunekin lerrokatzeko.
6. LANBIDE HOBETZEN	19. Enpresen eta pertsonen beharretara egokitutako prestakuntza- eta enplegu-planen diseinuan sakontzea.
	20. Esku-hartze, arreta eta zerbitzuen eredu berria ezartzea Lanbideren bulego-sarean.
7. ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA	21. Enpresentzako zerbitzu-zorroa handitzea (bisita prospektiboak, arreta pertsonalizatua, enplegu-hautagaitzen hornidura bizkortzea)
	22. Programak eta jardun-ildoak ebaluatzeko proiektu pilotuak garatzea, Espainiako eta Europako jarraibideekin bat datorren ebaluazio-eredu eskalagarri bat ezartzeko.
8. EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	23. Erakundeen eta sektoreko eragileen arteko hitzarmen-prozesu bat garatzea, sistema aurreko enplegu-planen alboratzea gainditu eta sistema ordenatu, kooperatibo eta kolaboratibo bati bide emango dion elkarlaneko gobernantza-eredu bat adosteko.
	24. Euskal Enplegu Sistemaren Legea garatzea eta onartzea.
1. BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN	25. Emakumeen eta gizonen soldata-arrakala erdira murrizten laguntzea.
	26. Emakumezko landunen behin-behinekotasun-tasa murrizten laguntzea.
	27. Gazteen enplegu-tasa murrizten laguntzea, EB-27rekin bat eginez.
	28. Iraupen luzeko langabezia-tasa murrizten laguntzea, EB-27rekin bat eginez.

1. Sarrera

Planteatutako helburu estrategikoak lortzeko, 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoa **8 jarduera-eremutan eta zeharkako bederatzigarren eremu batean** egituratzen da, eta **26 ildo** estrategikotan zehazten da.

JARDUERA-EREMUAK	ILDO ESTRATEGIKOAK
1. ENPLEGUA BERRESKURATzea, MANTENTZEA ETA SORTZEA	1.1. EKINTZAIETZA SUSTATZEA ETA ENPRESAK SENDOTZEA
	1.2. TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEA
	1.3. ENPLEGU PUBLIKOA SORTZEA
	1.4. GIZARTE-EKONOMIA BULTZATZEA
	1.5. SEKTORE-PROGRAMAK
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	2.1. ELKARRIZKETA SOZIALA ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA
	2.2. IKUSKAPENA, BABES- ETA BERME-TRESNA GISA
	2.3. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA
	2.4. LAN-BALDINTZAK ETA ENPLEGUAREN EGONKORTASUNA
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTSIZIOETAN: DIGITALA, ENERGETIKO KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	3.1. TRANTSIZIO DIGITALERAKO ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA LANEAN EDO LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONENTZAT
	3.2. TRANTSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKORAKO ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA LANEAN EDO LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONENTZAT
	3.3. TRANTSIZIO SOZIAL ETA DEMOGRAFIKORAKO ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA LANEAN EDO LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONENTZAT
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	4.1. LANGABEENTZAKO ETA KOLEKTIBO KALTEBERENTZAKO ENPLEGU-ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK
	4.2. ENPLEGATUEN GAITASUN PROFESIONALAK BIRKUALIFIKATZEKO ETA EGOKITZEKO PROGRAMAK
	4.3. GDSBES LEGE BERRIA INPLEMENTATZEA
5. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-RAKO EUSKAL EREDUA	5.1. INFORMAZIO- ETA AURREIKUSPEN-SISTEMAK HOBETZEA
	5.2. PRESTAKUNTZA-ENPLEGU PLANEN DISEINUAN SAKONTZEA
6. LANBIDE HOBETZEN	6.1. ESKU-HARTZE, ARRETA ETA ZERBITZUEN EREDU BERRIA EZARTZEA
	6.2. ENPRESENTZAKO ZERBITZUEN ZORROA HANDITZEA
7. ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA	7.1. EBALUAZIO-PROIEKTUAK DISEINATZEA, GARATZEA ETA HEDATZEA
8. EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	8.1. EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA GARATZEA ETA ONARTZEA
9. AUKERA BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN	9.1. GENERO BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN
	9.2. GAZTE ENPLEGUA
	9.3. 45 URTETIK GORAKOEN ENPLEGUA
	9.4. ENPLEGU INKLUSIBOA
	9.5. HIZKUNTZA-BERDINTASUNA



2.

2022KO EMAITZA NAGUSIAK

2. 2022ko emaitza nagusiak

2.1. GAUZATZE-MAILA OROKORRA

2.1.1. Gauzatze-maila orokorra

Enplegu Plan Estrategikoko 154 ekintzaren egoera berrikusi da 2022aren amaieran

2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoaren jarduketei buruz egindako azterketan sakondu aurretik, adierazi 154 jarduketari buruzko informazioa jaso dela, hau da, 2022rako hasieran programatutakoa baino bolumen handiagoa (aurreikusitako 143 ekintza). Izan ere, programazioaren hasieran aurreikusi ez ziren 11 ekintza sartu dira berrikuspenean, ondorengo ekitaldi baterako planifikatuta zeudelako edo berriak garatu direlako, baina, hala ere, 2022an zehar egin dira:

- A.1.1.21: Zainketen eta Silver Economyren eremuan gizarte-ekonomiako enpresen aukerak garatzea, ZainLab proiektutik abiatuta (2022 eta 2023 aldian): Ekintza honek Zainlab II proiektuaren ekintzailtza-ildoan barne hartzen du (A.3.3.3rekin lotutako ekintza).
- A.3.1.9: Trantsizio digitalean produkzio-sarea eraldatzeko eta eskatutako gaitasunak eskuratzera bideratutako prestakuntza-ekintzak (10.500, 2023-2024 epealdian).
- A.3.2.7: Biztanleria landunari zuzendutako prestakuntza-ekintzak, trantsizio energetiko-klimatikoan eskatutako gaitasunak eta produkzio-ehuna eraldatzen dutenak eskuratzera bideratuak (2.250, 2023-2024 aldian).
- A.3.2.8: Logistika eta garraioko prestakuntza eta prestakuntza-instalazioen hobekuntza: Arabako logistikaren eta garraioaren sektoreko prestakuntza-jardueren azterketa, Bizkaira eta Gipuzkoara begira, eta hura ezartzeko jarduketa-plan bat egitea; prestakuntza-instalazioak hobetzeko proiektu bat eta Arabako logistikaren eta garraioaren arloko prestakuntza-plan bat ezartzea.
- A.3.3.8: Bereziki kalteberak diren kolektiboen berrorekarako eta ekitaterako lurralde proiektu berriak (2.104 langaberi laguntzea 2022tik 2023ra bitartean).
- A.3.3.9: Biztanleria landunari zuzendutako prestakuntza-ekintzak, trantsizio sozial eta demografikoan produkzio-ehuna eskatzen eta eraldatzen duten gaitasunak eskuratzera bideratuak (2.250 2023-2024 aldian).
- A.4.1.19: Euskadiko eremu behartsuetan eta landa-inguruneetan enplegu inklusiboa sustatzeko lankidetzak publiko-pribatuko aukerak identifikatzea.
- A.4.1.20: Prestakuntza-proiektuak garatzea, gazte kalteberetikiko plan integratuen bidez (Beta Programaren 1.ardatza). (A.1.1.9rekin lotutako ekintza).
- A.7.1.6: 50 urtetik gorako landunentzako gaitasunen ebaluazioa.
- A.7.1.8: Business Intelligence sistema korporatiboaren bilakaera.
- A.7.1.12: Enpleguari eta inklusioari buruzko jardunaldiak eta kongresuak antolatzea.


2. 2022ko emaitza nagusiak

2022an, Enplegu Planean aurreikusitako 126 jarduera gauzatu dira.

Enplegu Planean parte hartzen duten eragileek emandako informazioaren arabera, 2022an 126 ekintza egin dira, hau da, % 81,8. Adierazle hori % 78koa izango zen hasieran programatutako jarduera-bolumenaren gainean kalkulaturaz gero (143 jarduera).

2022ko jarduketaren gainean egindako berrikuspenetik, 2022an inplementatu ez diren Enplegu Planeko 20 jarduketa identifikatu dira. Era berean, Planaren 8 jarduketatan 2022an garatutako jarduerari buruzko informaziorik ezin izan dela lortu egiaztatu da, nahiz eta jarduera horiei buruzko datuak lortzeko ahaleginak egin diren.


2.1 grafikoa 2021-2022 Enplegu Plan Estrategikoan gauzaturako jarduketaren bolumena



2022an egindako 3 jardueretatik 2 osorik gauzatzea lortu da

Enplegu Plan Estrategikoan inplikaturako eragileen artean egindako kontsultari esker, egiaztatu ahal izan da aurreikusitako jarduera osorik betez lortu dela 2022an egindako 80 ekintzatan. Bestalde, 46 ekintzatan lan egin da, baina ekintzen arduradunek esku-hartze partzialtzat jo dute ekintza horiek gauzatzea.

2.2 grafikoa 2021-2022 Enplegu Plan Estrategikoan gauzaturako jarduketaren gauzatze-maila



2. 2022ko emaitza nagusiak

2.1.2. Gauzatze-maila jarduera-eremuen arabera

2022an ekintzak egin dira Enplegu Planaren 8 jarduera-eremuetan

Enplegu Plana 8 jarduera-eremutan zehazten da, eta 2022an guztietan aurrera egitea lortu da. Zehazki, 35 jarduera egin dira enplegua berreskuratzeko, mantentzeko eta sortzeko, 25 ekintza enpleguaren kalitatea sustatzeko eta 22 ekintza enplegu eta prestakuntza erresiliente eta inklusiborako. Bestalde, aurrera egin da 3 trantsizioetan (digitala, energetiko-klimatikoa eta demografikoa) biztanleria landunaren eta langabearen prestakuntza hobetzeko 18 ekintza gauzatzean.

2022an, enplegurako prestakuntzaren euskal ereduaren garapenean aurrera egitea ahalbidetzen duten 11 jarduera eta Lanbide Hobetzen erakundeak aurreikusitako 3 jarduketa ere landu dira.

Enplegu-politika aktiboen ebaluazioan ere aurrera egin da, 8 ekintza gauzatu. Euskal Enplegu Sistemaren Legearen esparruan 3 jarduera garatu dira.

JARDUERA-EREMUAK	Programatutako jarduketaren kopurua		Gauzatutako jarduketaren kopurua		Betetze-maila 2022	
	Kopurua	%	Kopurua	%		
1. Enplegua berreskuratzea, mantentzea eta sortzea	43	%27,9	35	%27,8	%81,4	●
2. Enpleguaren kalitatea	26	%16,9	25	%19,8	%96,2	●
3. Enplegua eta prestakuntza 3 trantsizioetan: digitala, energetiko-klimatikoa eta demografikoa	25	%16,2	18	%14,3	%72,0	●
4. Enplegua eta prestakuntza erresilientea eta inklusiboa	31	%20,1	22	%17,5	%71,0	●
5. Enplegurako prestakuntzaren euskal eredia	11	%7,1	11	%8,7	%100,0	●
6. Lanbide Hobetzen	6	%3,9	4	%3,2	%66,7	●
7. Enplegu-politika aktiboen ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioa	9	%5,8	8	%6,3	%88,9	●
8. Euskal Enplegu sistemaren Legea	3	%1,9	3	%2,4	%100,0	●
Enplegu Plan Estrategikoa guztira	154	%100,0	126	%100,0	%81,8	●

2. 2022ko emaitza nagusiak


2.3 grafikoa 2022an gauzatutako jardueren banaketa jarduera-eremuen arabera



Jarduketan gauzate-maila % 81koa da.

2022an Enplegu Planeko jarduketan gainean egindako jarduketan ehunekoa % 81,2 da, hau da, betetze-maila handia. Gauzate-maila hori oso handia izan da enplegurako prestakuntzako euskal ereduaren eta Euskal Enplegu Sistemaren Legearen garapenari dagozkion eremuetan, programatutako ekintza guztietan lan egin baita. Enpleguaren kalitatea hobetzera bideratutako 2. eremuaren kasuan ere betetze-maila handia izan da (ikuskapen, segurtasun eta laneko osasuneko jardueten bidez), baita ikerketaren, berrikuntzaren eta ebaluazioaren eremuko ekintzen kasuan ere. Aldiz, 2022an betetze-maila txikiagoa lortu da Lanbide Hobetzen ezartzeko ekintzei dagokienez.

2.4 grafikoa 2022an programatutako jardueren aldean gauzatutako jardueren gauzate-maila, jarduera-eremuen arabera



2. 2022ko emaitza nagusiak

2.1.3. Gauzatze-maila ildo estrategikoen arabera

Taula honetan, 2022an programatutako eta gauzatutako jarduketaren bolumena zehazten da, jarduera-eremuen eta ildo estrategikoen arabera. Programatutako jarduketekiko betetze-maila heterogeneoa izan da, ildo estrategikoen arabera.

JARDUERA-EREMUAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	Programatuta ko jarduketaren kopurua	Gauzatutako jarduketaren kopurua	Betetze-maila 2022	
1. ENPLEGUA BERRESKURATzea, MANTENTzea ETA SORTzea	1.1 Ekintzailatza sustatzea eta enpresak sendotzea	20	16	%80,0	●
	1.2 Tokiko enplegua sustatzea	5	4	%80,0	●
	1.3 Enplegu publikoa sortzea	1	1	%100,0	●
	1.4 Gizarte-ekonomia bultzatzea	6	5	%83,3	●
	1.5 Sektore-programak	11	9	%81,8	●
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	2.1 Elkarriketa soziala eta negoziazio kolektiboa	6	6	%100,0	●
	2.2 Ikusapena, babes- eta berme-tresna gisa	7	7	%100,0	●
	2.3 Laneko segurtasuna eta osasuna	10	9	%90,0	●
	2.4 Lan-baldintzak eta enpleguaren egonkortasuna	3	3	%100,0	●
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTSIZIOETAN: DIGITALA, ENERGETIKO KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	3.1 Trantsizio digitalerako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezia dauden pertsonentzat	9	6	%66,7	●
	3.2 Trantsizio energetiko-klimatikorako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezia dauden pertsonentzat	8	7	%87,5	●
	3.3 Trantsizio sozial eta demografikorako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezia dauden pertsonentzat	8	5	%62,5	●
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	4.1 Langabeentzako eta kolektibo kalteberentzako enplegu- eta prestakuntza-programak	12	12	%100,0	●
	4.2 Enplegatuen gaitasun profesionalak birkualifikatzeko eta egokitzeko programak	18	9	%50,0	●
	4.3 GDSBES lege berria inplementatzea	1	1	%100,0	●
5. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN EUSKAL EREDUA	5.1 Informazio- eta aurreikuspen-sistemak hobetzea	4	4	%100,0	●
	5.2 Prestakuntza-enplegu planen diseinuan sakontzea	7	7	%100,0	●
6. LANBIDE HOBETZEN	6.1 Esku-hartze, arreta eta zerbitzuen eredu berria ezartzea	4	3	%75,0	●
	6.2 Enpresentzako zerbitzuen zorroa handitzea	2	1	%50,0	●
7. ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA	7.1 Ebaluazio-proiektuak diseinatzea, garatzea eta hedatzea	9	8	%88,9	●
8. EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	8.1 Euskal enplegu sistemaren legea garatzea eta onartzea	3	3	%100,0	●
9. BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN	9.1 Genero-berdintasuna enpleguan	12	11	%91,7	●
	9.2 Gazteen enplegua	17	15	%88,2	●
	9.3 45 urtetik gorako enplegua	5	4	%80,0	●
	9.4 Enplegu inklusiboa	8	8	%100,0	●
	9.5 Hizkuntza-berdintasuna	2	2	%100,0	●
GUZTIRA		154	126	%81,8	●

2. 2022ko emaitza nagusiak

2022an, gauzatze-maila handia izan da ildo estrategiko askotan. Hala ere, honako ildo estrategiko hauek nabarmentzen dira, betetze-maila txikiagoa lortu dutelako:

- 3.1 lerroa: Trantsizio digitalerako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezia dauzen pertsonentzat (9tik 6 gauzatu dira)
- 3.3 lerroa: Trantsizio sozial eta demografikorako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezia dauzen pertsonentzat (8tik 5 gauzatu dira)
- 4.2 lerroa: Enplegatuen gaitasun profesionalak birkualifikatzeko eta egokitzeko programak (19tik 10 gauzatu dira)
- 6.2 lerroa: Enpresentzako zerbitzuen zorroa handitzea (2tik 0 gauzatu dira)

2.2. GAUZATZE-MAILA, JARDUERA-EREMUEN ETA ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA


2.2.1. 1. jarduera-eremua: Enplegua berreskuratzea, mantentzea eta sortzea

2022an 35 jarduketa egitea lortu da 1. eremuan, Enplegua berreskuratzeari, mantentzeari eta sortzeari dagokienez, programatutako jarduketaren % 81 betez. Eremu honen betetze-maila ertaina da.

Ildo estrategikoen arabera, baieztatu behar da jarduketa gehienak (16) ekintzaitzari eta enpresak sendotzeari eta programa sektorialetatik laguntza lantzen duten jardueri dagozkiela (9).

2022an, gazteei eta ekintzaitza-proiektuei eta mikroenpresei zuzendutako proiektu pilotuak jarri ziren abian, praktiketako onuradunak hartzen dituzten enpresak bilatuz. Ekintza hori Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak egin zuen. Era berean, ZainLab (Zainlab II) proiektutik abiatuta, zaintzaren eta Silver Economyren eremuan ekintzaitzaren aldeko apustua aipatu behar da.

2.5 grafikoa Gauzaturako jarduketaren bolumena 1. jarduera-eremuan "Enplegua berreskuratzea, mantentzea eta sortzea", ildo estrategikoen arabera



Aurreikusitako jarduketaren betetze-maila handia izan da honako ildo estrategiko hauetan: tokiko enplegua sustatzea, enplegu publikoa sortzea, gizarte-ekonomiari laguntzea eta programa sektorialak. Enpresen ekintzaitza eta sendotzea sustatzeko ekintzek betetze-maila ertaina lortzen dute.

2. 2022ko emaitza nagusiak

ILDO ESTRATEGIKOAK	Programatutako jarduketan kopurua	Gauzatutako jarduketan kopurua	Betetze-maila 2022	
1.1 Ekintzailtza sustatzea eta enpresak sendotzea	20	16	%80,0	●
1.2 Tokiko enplegua sustatzea	5	4	%80,0	●
1.3 Enplegu publikoa sortzea	1	1	%100,0	●
1.4 Gizarte-ekonomia bultzatzea	6	5	%83,3	●
1.5 Programa sektorialak	11	9	%81,8	●
1. JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA	43	35	%81,4	●

1. eremuaren barruan, honako ekintza hauek nabarmendu behar dira, bere osotasunean egin direlako, ildo estrategikoen arabera:

1.1.: Ekintzailtza sustatzea eta enpresak sendotzea

- Innobideak, Basque Digital eta Innovation Hub programak, berrikuntza eta lehiakortasuna hobetzeko.
- Lanbideren Sustapen Zerbitzuaren ekintzailtzarako laguntzak, abian jartzeko.
- Mikroenpresak eta enpresa txikiak sendotzen laguntzea, enpresa sortu berrien sustapena, funtzionamendua eta kudeaketa babestuz.
- Lankidetzat-hitzarmenak eta -ekimenak unibertsitateekin, laneratzeari eta ekintzailtzari buruz sentsibilizatzeko eta unibertsitatearen eremuan sortutako ekimen ekintzailteei laguntzeko.
- Emakumeen ekintzailtza eta emakumeen talentua sartzea enpresa eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan.
- Gazteei eta ekintzailtza-proiektuei eta mikroenpresei zuzendutako proiektu pilotuak garatzea, praktiketako onuradunak hartuko dituzten enpresak bilatuz.
- Urrats bat programa, lanbide-heziketako ikasleen artean kultura ekintzailtza sustatzeko.
- Zailtasunak dituzten enpresei arreta, aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuak ematea, Bilakatu eta Bateratu programen bidez.
- Finantza-laguntza, krisian dauden enpresak berregituratu eta bultzatzeko, Bideratu Barria programaren bidez.
- Enpresei laguntzea, Indartu deialdiari esker, eremu behartsuetan enplegua sortzen duten inbertsio-proiektuak garatzen.
- Enpresen finantza-finkapena eta hazkunde-proiektuen garapena erraztea, lanpostuak mantentzen lagunduz.
- Gizarte Ekonomiako enpresen aukerak garatzea zainketen eta Silver Economyren esparruan, ZainLab II proiektutik abiatuta (ekintzailtza-lerroa). Proiektu honek, prestakuntzaz gain, ekintzailtzarako laguntza eskaintzen du Silver Economyn.

2. 2022ko emaitza nagusiak

1.2.: Tokiko enplegua sustatzea

- Langabeen laneratzea sustatzea Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez.
- Gazteak toki-erakundeen bidez kontratatzea.

1.3.: Enplegu publikoa

- Administrazioaren EPEen bidez plazak onartzea.

1.4.: Gizarte-ekonomia bultzatzea

- Gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzen laguntzea.
- Gizarte-ekonomiako enpresetan lan-bazkide mugagabeen oinarria handitzea.
- Krisian dauden enpresak gizarte-ekonomiako enpresetara aldatzeko prozesuei laguntzea.
- Gizarte-ekonomiako enpresek besteren finantzaketa eskuratzeko erraztasunak ematea.

1.5.: Programa sektorialak

- Merkataritza-establezimenduetako azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatzen laguntzea.
- Merkataritza elektronikoaren modalitatea ezartzen laguntzea.
- Merkataritza-establezimenduen enpresa-transmisioari laguntzea, belaunaldien arteko erreleborako eta sektoreko ekintzailtzarako neurri gisa.
- Turismo-enpresak modernizatzen eta hobetzen laguntzea.
- Turismo-enpresen enpresa-transmisioari laguntzea.
- Landa-ingurunean eta itsasertzean enpleguak sortzea.
- Eraikuntza-jarduerara bideratutako enpresa-establezimendu berriak sortzea.
- Birgaitzeko obren balio ekonomikoa handitzea bizitegi-eraikuntzaren azpisektoreko obra guztiekiko.

2. 2022ko emaitza nagusiak


2.2.2. 2. jarduera-eremua: Enpleguaren kalitatea

Enpleguaren kalitateari buruzko 2. eremuan, 25 jarduketa egin dira 2022an, eta betetze-maila handia lortu da (%93).

Ildo estrategikoen arabera, laneko segurtasun eta osasunaren arloan 9 jarduketa egin dira eta ikuskaritzako arloan 7 ekintza gauzatu dira. Halaber, elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa sustatzeko 6 jarduketa bultzatu dira, bai eta lan-baldintzak eta enpleguaren egonkortasuna hobetzeko 3 neurri ere.

Esparru horren barruan, erakunde arteko lantalde bat eratu da, inplikaturako eragileen artean laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko eredu bat sortzeko.

2.6 grafikoa 2. jarduera-eremuan gauzaturako jarduketan bolumena: 2. jarduera-eremuan "Enpleguaren kalitatea", ildo estrategikoen arabera



Nabarmentzekoa da jarduera-eremu honetako lau ildo estrategikoen betetze-maila handia izan dela.

ILDO ESTRATEGIKOAK	Programaturako jardueren kopurua	Gauzaturako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022	
2.1 Elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa	6	6	%100,0	●
2.2 Ikuskapena, babes- eta berme-tresna gisa	7	7	%100,0	●
2.3 Laneko segurtasuna eta osasuna	10	9	%90,0	●
2.4 Lan-baldintzak eta enpleguaren egonkortasuna	3	3	%100,0	●
2. JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA	26	25	%96,2	●

2. jarduera eremuaren barruan, honako ekintza hauek nabarmendu behar dira, bere osotasunean egin direlako, ildo estrategikoen arabera:

2.1.: Elkarrizketa soziala eta negoziazio-kolektiboa

- Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren zeregina indartzea eta zabaltzea, enpleguari buruzko euskal politika bultzatzeko beharrezko adostasuna errazteko tresna den aldetik, eta hiru trantsizioak erraztea, bidezko trantsizioa bultzatuko duten neurriak bultzatuz.
- Gizarte-eragileekin lotutako pertsonen prestakuntza, prestakuntza-planak sustatzeko emandako laguntzen bidez.

2. 2022ko emaitza nagusiak

- Hitzarmen kolektiboetan genero-eragina duten txostenak egitea.
- Berdintasun-batzordeen trebakuntza eta prestakuntza hobetzea, enpresetan berdintasun-planak garatzeko laguntzen bidez.
- Auditoria soziolaborala sustatzea, "Auditoria eta aholkularitza soziolaborala" titulu propioa lortzera bideratutako azterlanak finantzatzuz.
- Lan Harremanen eredu berria zabaltzeko jardunaldiak antolatzea, Oñatiko Adierazpenaren bidez.

2.2.: Ikuskapena, babes- eta berme-tresna gisa

- Kolektibo zaugarrienen eta/edo sindikazio-maila txikia dutenen lan-baldintzak defendatzea, Gizarte eta Lan Informazioko Bulegoen bidez, eta Lan Iruzurraren aurkako Herritarren Postontzia bultzatuz.
- Aldi baterako kontratazioaren eta kontratazio partzialaren iruzurrari eta bereziki sentikorrak diren lan-baldintzei, hala nola ordutegia eta lanaldiak, buruzko kanpainak.
- Lan-ikuskaritza, bere baliabide pertsonalak, antolakuntzakoak, teknologikoak, digitalak eta abar, bere zereginetan enpleguaren arloko kalitate-planen aholkularitza eta sustapena txertatuz.
- Koordinazio teknologikoko mekanismoak Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko Lan Ikuskaritzarekin, hau da, ITSSren Estatuko erakunde autonomoarekin, lankidetzan estuan kanpainak eta talka-planak eginez Iruzurraren aurka Borrokatzeko Erremintatik (HLF) lortutako iruzur-informazioarekin.
- Euskadiko ikuskaritza-jardueraren gardentasuna, urtero Lan Ikuskaritzako kanpainen emaitzak zabalduz eta gizarte-eragileek eta gizarteak kanpainen programazioa eskura izan dezaten lagunduz.
- Emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasunaren arloko Lan Ikuskaritzako kanpainak. Genero-ikuspegia txertatzea segurtasun- eta osasun-kanpainetan.

2.3.: Laneko segurtasuna eta osasuna

- Prebentzioko ordezkarien prestakuntza, urteko prestakuntza-ekintzen bidez.
- Laneko segurtasun- eta osasun-kanpainetan genero-ikuspegia sartzea.

2.4.: Lan-baldintzak eta enpleguaren egonkortasuna

- Pertsonak kontratatzen laguntzea, lana eta familia bateragarri egiteko neurrien erabilera sustatzeko enpresei laguntza emanez.
- Segurtasun Zuzendaritzak maskulinizatutako sektoreetan emakumeen presentzia sustatzeko jarduerak.

2. 2022ko emaitza nagusiak

2.2.3. 3. jarduera eremua: Enplegua eta prestakuntza 3 trantsizioetan: digitala, energetiko-klimatiko eta demografikoa


Hiru trantsizio handietan enplegua eta prestakuntza bultzatzeari dagokion 3. eremuan, aurrera egin da 18 ekintza gauzatuz. Aurreikusitako jarduketaren betetze-maila % 72koa izan da.

Zehazki, trantsizio digitalari laguntzeko 6 ekintza egin dira, trantsizio sozial eta demografikorako 6 ekintza eta trantsizio energetiko-klimatikorako 5 ekintza.

Azpimarratzekoa da 2022an Lanbideek biztanleria landunari zuzendutako prestakuntza-ekintzak abiarazi zituela, hasiera batean ekitaldi honetako programazioan aurreikusi ez ziren 3 trantsizioetan (digitala, energetiko-klimatiko eta soziala eta demografikoa) gaitasunak eskuratzera bideratuak. Halaber, adierazi behar da 2022an aurrera egin dela bereziki kalteberak diren kolektiboen berronakarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien sorreran.

Era berean, 2022an logistika eta garraioko prestakuntzara eta prestakuntza-instalazioen hobekuntzara bideratutako ekintza berri bat aipatu behar da. Zehazkiago, Arabako logistikaren eta garraioaren sektoreko prestakuntza-beharrei buruzko azterlan bat egin da, Bizkaira eta Gipuzkoara begira, eta jarduera-plan bat prestatu da, prestakuntza-instalazioak hobetzeko proiektu bat eta Arabako logistikaren eta garraioaren arloko prestakuntza-plan bat ezartzeko.

2.7 grafikoa 3. jarduera-eremuan gauzatutako jarduketaren bolumena: "Enplegua eta prestakuntza 3 trantsizioetan: digitala, energetiko-klimatiko eta demografikoa", ildo estrategikoen arabera



Betetze-maila ertaina izan da trantsizio digitalerako eta trantsizio sozial eta demografikorako enplegatuen eta langabetuen enplegu- eta prestakuntza-jarduketaren ildoetan. Trantsizio energetikorako eta klimatikorako enplegu- eta prestakuntza-ildoek betetze maila txikiagoa dute.

2. 2022ko emaitza nagusiak

ILDO ESTRATEGIKOAK		Programatutako jardueren kopurua	Gauzaturako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022	
3.1	Trantsizio digitalerako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezian dauden pertsonentzat	9	6	%66,7	●
3.2	Trantsizio energetiko-klimatikorako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezian dauden pertsonentzat	8	7	%87,5	●
3.3	Trantsizio sozial eta demografikorako enplegua eta prestakuntza lanean edo langabezian dauden pertsonentzat	8	5	%62,5	●
3. JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA		25	18	%72,0	●

3. jarduera eremuaren barruan, honako ekintza hauek nabarmendu behar dira, bere osotasunean egin direlako, ildo estrategikoen arabera:

3.1.: Trantsizio digitalerako enplegua eta prestakuntza

- Merkataritzarako prestakuntza-plana, prestakuntza-eredu berrien eta e-learning plataformen bidez, gaitasuna eta, bereziki, eraldaketa digitala indartzeko.
- Biztanleria landunari zuzendutako prestakuntza-ekintzak, trantsizio digitalean produkzio-ehuna eskatzen eta eraldatzen duten gaitasunak eskuratzera bideratuak.

3.2.: Trantsizio energetiko-klimatikorako enplegua eta prestakuntza

- Langabeen enplegarritasuna hobetzea, energia- eta klima-trantsizioan eragina duten eta enpresek kontratatzeke konpromisoa duten prestakuntza-ekintzen bidez.
- Biztanleria landunari zuzendutako prestakuntza-ekintzak, Lanbidekin finantzaturako energia-klimaren trantsizioan produkzio-ehuna eraldatzen eta eskatzen duten gaitasunak eskuratzera bideratuak.
- Logistikako eta garraioako prestakuntza eta prestakuntza-instalazioen hobekuntza: Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak sustatu du Arabako logistikaren eta garraioaren sektoreko prestakuntza-premiei buruzko azterlan bat egitea, Bizkaira eta Gipuzkoara begira, eta hura ezartzeko jarduketaren plan bat egitea. Halaber, prestakuntza-instalazioak hobetzeko proiektu bat eta Arabako logistikaren eta garraioaren arloko prestakuntza-plan bat ezarri dira.

3.3.: Trantsizio sozial eta demografikorako enplegua eta prestakuntza

- Zaintza-sektoreko lanbideetan (etxez etxeko laguntza, zaintzaileak...) lanbide-gaikuntzako prozesuak diseinatzea eta ezartzea.
- Zaintza arloko prestakuntza-programa esperimental bat garatzea, Gizarte Ekonomiako enpresek zaintza arloan dituzten aukerak garatzeko eredu eta Silver Economy, ZainLab II proiektutik abiatuta. Proiektu hau zaintza arloan rol eta figura profesional berriak inplementatzean eta hedatzean datza. Esku hartzeko gune handiak ditu: sektorearen profesionalizazioa; profesionalen upskillimg, beste pertsona batzuen zaintzaren eta silverizazioaren esparruan; zerbitzu eta programa berrien pilotutza;

2. 2022ko emaitza nagusiak

- Biztanleria landunari zuzendutako prestakuntza-ekintzak, Lanbidek finantzatutako trantsizio sozial eta demografikoan produkzio-sarea eskatzen eta eraldatzen duten gaitasunak eskuratzera bideratuak.

2.2.4. 4. jarduera eremua: Enplegu eta prestakuntza erresiliente eta inklusiboa

Enplegu eta prestakuntza erresiliente eta inklusiboaren 4. eremuan, aurrera egin da 22 ekintza gauzatu. Aurreikusitako jarduketan betetze-maila zertxobait txikiagoa izan da, % 71koa, eta maila ertainekotzat jo da.

Ildo estrategikoen arabera, langabetuentzako eta kolektibo zaugarrientzako enplegu eta prestakuntzako 12 jarduketa egitea edo abian jartzea lortu da, bai eta enplegatuen gaitasun profesionalak birkualifikatzeko eta egokitzeko 9 ekintza ere. 2022an, oraindik ez zen jarduketarik aurreikusi GDSBESaren lege berria ezartzeko.

Ekintza aipagarri gisa, euskal enpleguaren Liburu Zuriaren garapena eta EEE 2030en esparruan politikak eta ibilbide-orria oinarritzen dituen oinarrien dokumentu bat egitea aipatu behar dira. Bestalde, Beta Programa nabarmendu behar da, 4. ardatzean 16 eta 29 urte bitarteko gazte kalteberekin prestakuntza-proiektuak garatzea lortu duena, haien enplegagarritasuna hobetuko duten gaitasunak entrenatzeko. 2022an, halaber, lankidetzaren publiko-privatuko aukerak identifikatzen lan egin da, Euskadiko eremu behartsuetan eta landa-inguruneetan enplegu inklusiboa sustatzeko.

2.8 grafikoa 4. jarduera-eremuan gauzatuak jarduketan bolumena: "Enplegu eta prestakuntza erresiliente eta inklusiboa", ildo estrategikoen arabera



Programatutako jarduerari dagokionez, betetze maila handia izan da langabeentzako eta kolektibo kalteberentzako enplegu- eta prestakuntza-programen kasuan, eta 2022an aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu dira. Gauza bera gertatu da GDSBES (Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema) lege berria ezartzeko ildoarekin. Langileen lanbide-gaitasunak birkualifikatzeko eta egokitzeko programen gauzatzeko-maila askoz txikiagoa izan da.

2. 2022ko emaitza nagusiak

ILDO ESTRATEGIKOAK	Programatutako jardueren kopurua	Gauzaturako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022	
4.1 Langabeentzako eta kolektibo kalteberentzako enplegu- eta prestakuntza-programak	12	12	%100,0	●
4.2 Enplegatuen gaitasun profesionalak birkualifikatzeko eta egokitzeko programak	18	9	%50,0	●
4.3 IDSBES lege berria inplementatzea	1	1	%100,0	●
4. JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA	31	22	%71,0	●

4. jarduera eremuaren barruan, honako ekintza hauek nabarmendu behar dira:

4.1.: Langabeentzako eta kolektibo kalteberentzako enplegu- eta prestakuntza-programak

- 17.151 langaberen trebakuntza eta birkualifikazioa bultzatzea, lan-merkatuaren beharretara egokitutako enplegurako prestakuntza-ekintzen bidez.
- Euskararen ikaskuntza lanbide-heziketan integratzea Lanbideren bitartez (Lanbiderekin hitzarmena, langabetuak euskalduntzeko), 2022an 826 langabek parte hartuta.
- Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden 9.608 pertsonaren trebakuntza hobetzea, Enplegu Zentro Berezien eta Laneratzeako Enpresen jarduerak babestuz.
- Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden 136 pertsona merkatu arrunteko enpresetan laneratzeko laguntzea.
- Oarsoaldea berrabiaraztea Bepiztu programaren eta Gizarteratze Gunearen bidez, 617 pertsonari arreta emanez eta 181 lanpostu sustatuz. Asmo handiko proiektu honek, enpresentzako laguntzekin kontratatzeaz gain, ekintzailatza-proiektuak, langabeen prestakuntza eta kontrataziodun enplegu- eta prestakuntza-programak biltzen ditu.
- Euskal Enpleguaren Liburu Zuria eta EEE 2030en esparruan politikak eta ibilbide-orria oinarritzen dituen oinarrien dokumentua egitea.
- Eremu behartsuetan eta Euskadiko landa-inguruneetan enplegu inklusiboa bultzatzeko lankidetzak publiko-privatuko aukerak identifikatzea.
- Prestakuntza-proiektuak garatzea gazte kalteberekin integratutako planen bidez (Beta Programaren 1. ardatza).

4.2.: Enplegatuen gaitasun profesionalak birkualifikatzeko eta egokitzeko programak


- Krisialdian dauden sektoreei zuzendutako Aukeraberri programa sortzea eta 231 pertsona birkualifikatzeko eta/edo birkokatze prozesuak garatzea.
- 5.247 gazteren kualifikazioa sustatzea, enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartuz.
- Euskara sustatzea, 7.719 pertsona lanpostuan sartzeko tresna gisa.
- Saltokien enpresa-lehiakortasuna hobetzea, kudeaketa aurreratuko programen bidez eta hurbileko merkataritzarako enpresa-kudeaketako prestakuntza-ekintzen bidez.
- Lehen sektorearen eta landa-ingurunearen lehiakortasuna eta bideragarritasuna handitzea, kualifikazioari eta gaitasunak eskuratzeari lagunduz, prestakuntza-ekintzetan 4.458 pertsonak parte hartuz.

2. 2022ko emaitza nagusiak

2.2.5. 5. jarduera-eremua: Enplegurako prestakuntzarako euskal eredu

5. jarduera-eremua enplegurako prestakuntzaren euskal ereduari dagokio. 2022an 11 ekintza egin dira, eta gauzatze-maila altua izan da (% 100).

2.9 grafikoa 5. jarduera-eremuan gauzaturako jarduketaren bolumena: "Enplegurako prestakuntzarako euskal eredu", ildo estrategikoen arabera



2022an 4 jarduketa egin dira prestakuntza- eta enplegu-planen diseinuan sakontzeko eta 7 ekintza informazio- eta prospekzio-sistemak hobetzeko. Bi ildo estrategikoetan planteaturako jarduerak behar bezala inplementatu dira.

ILDO ESTRATEGIKOAK	Programaturako jardueren kopurua	Gauzaturako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022
5.1 Informazio- eta aurreikuspen-sistemak hobetzea	4	4	%100,0 ●
5.2 Prestakuntza enplegu planen diseinuan sakontzea	7	7	%100,0 ●
5. JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA	11	11	100,0% ●

2. 2022ko emaitza nagusiak

5. jarduera eremuaren barruan, honako ekintza hauek nabarmendu behar dira, bere osotasunean egin direlako, ildo estrategikoen arabera:

5.1.: Informazio- eta aurreikuspen-sistemak hobetzea

- Enpleguaren arloko behaketa- eta prospekzio-lana indartzea, Future Lan tresna sendotuz.
- Enpleguaren arloan adituak diren beste eragile batzuekin lankidetzan, prospekzio- eta kontraste-jardueren garapena areagotzea.
- Kontratazioaren bilakaerari, tipologiari eta enplegu publikoari buruzko informazio estatistikoa ematea.
- Lanbide, profil eta lanpostura egokitzeko behar berriak modu partekatuan hautematea, premiak aurreikustea, sortzen ari diren lanbide-profilak,...

5.2.: Prestakuntza-enplegu planen diseinuan sakontzea

- Unibertsitate-prestakuntzan eredu duala pixkanaka handitzea, 1.617 ikaslek parte hartuta.
- Prestakuntza arautuaren ondoren, gazteen laneratzearen jarraipena egiteko sistemak eta azterlanak indartzea.
- Gazteak txanda-kontratuen bidez kontratatuzko pizgarria.
- Ikerketa-programa, 285 kontratari lagunduz eta 107 kontratu mugagabe lortuz.
- Lehen Aukera. Gazteak (enpresak) lan-merkatuan sartzera bideratutako ekintza, haien enplegarritasuna hobetuz eta haien laneratzea sendotzen lagunduz (diruz lagundutako 942 kontratu 2022an).
- Gazteak eraikuntzan eta eraldaketan agente eta eragile gisa sartzea, lanerako eta prestakuntza praktikorako inguruneetan gara ditzaketen ikaskuntzari buruzko ikuspegi berrien bidez. Reactivate programa, 2022an enpresekin sinatutako 155 beka-hitzarmen eta adostutako 215 prestakuntza-planekin.


2. 2022ko emaitza nagusiak

2.2.6. 6. jarduera-eremua: Lanbide hobetzen

2022an Lanbide hobetzen 6. eremuan, aurreikusitako 3 ekintzak gauzatzeko prozesuan aurrera egin da. Esku hartzeko, arreta emateko eta zerbitzuak emateko eredu berria ezartzeko lan egin da, Lanbideren bulego-eredu berria diseinatuta, baina oraindik ez da lortu eredu osoa ezartzea Lanbideren bulegoetan. Bestalde, azpimarratzekoa da 2022an Enplegurako Orientazio, Ekintzaitza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroen Sare bat diseinatu zela.

Bestalde, adierazi behar da 2022an Aurrerabide Programan lan egin dela eta enpresentzako zerbitzu-zorroa egokitzen ari dela. Lanbidek 2023an zerbitzu-zorro "aurreratuari" ekitea aurreikusten du, "Lanbideren antolaketa-ereldaketa" proiektuaren esparruan.

2.10 grafikoa 6. jarduera-eremuan gauzaturako jarduketaren bolumena: "Lanbide-hobetzen", ildo estrategikoen arabera



Planifikaturako jarduketekiko betetze-maila txikia izan da 6. jarduera-eremuko bi ildo estrategikoetan.

ILDO ESTRATEGIKOAK	Programaturako jardueren kopurua	Gauzaturako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022	
6.1 Esku-hartze, arreta eta zerbitzuen eredu berria ezartzea	4	3	%75,0	●
6.2 Enpresentzako zerbitzuen zorroa handitzea	2	1	%50,0	●
6. JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA	6	4	%66,7	●

2. 2022ko emaitza nagusiak

2.2.7. 7. jarduera eremua: Enplegu-politika aktiboen ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioa

2022an, enplegu-politika aktiboen ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioaren 7. eremuan, 8 ekintza egin dira, eta ondorioz, % 89ko gauzatze-maila lortu da.

2022an, honako jarduera hauek nabarmendu behar dira, ebaluazio-proiektuen diseinuan, garapenean eta hedapenean aurrera egitea ahalbidetzen dutenak:

- Enpleguaren arloko programen eta deialdien ebaluazioen emaitzak eta informazioa biltzeko eredu bat diseinatzea.
- Business Intelligence sistemaren bilakaera.
- Belaunaldien ordezkapen-politikan arrakasta izan duten ereduak aztertzea.

Bestalde, bereziki aipatu behar da 2022an enpleguari eta gizarteratzeari buruzko hainbat jardunaldi eta kongresu antolatu direla:

- Enpleguari buruzko V. Kongresua
- Inklusioari buruzko II. Jardunaldia
- Gazteen enpleguari buruzko jardunaldia
- BIME jardunaldiak, musika-sektoreetako profesionalenak

2.11 grafikoa 7. jarduera-eremuan gauzatutako jarduketaren bolumena: "Enplegu-politika aktiboen ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioa ebaluazioa", ildo estrategikoen arabera



ILDO ESTRATEGIKOAK	Programatutako jardueren kopurua	Gauzatutako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022	
7.1 Ebaluazio-proiektuak diseinatzea, garatzea eta hedatzea	9	8	%88,9	●
7.JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA	9	8	%88,9	●

2. 2022ko emaitza nagusiak


2.2.8. 8. jarduera eremua: Euskal Enplegu Sistemaren Legea

2022an, Enpleguaren Plan Estrategikoan Euskal Enplegu Sistemaren Legeari¹ buruzko 8. eremuan jasotako 3 ekintzak jarri ziren abian, eta aurreikusitako betearazpena % 100ean bete zen.

2022an, honako ekintza hauetan egindako aurrerapena nabarmendu behar da:

- Erakundeen eta sektoreko eragileen arteko ituntze-prozesu bat garatzea, enplegu-plan presistemikoak elkarren ondoan jartzea eta sistema ordenatu, kooperatibo eta kolaboratibo batera igarotzea gaindituko duen elkarlaneko gobernantza-eredu bat adosteko.
- Gobernantza-egituren aurreprestakuntza abian jartzea.
- Lege-proiektua EEZko eragile eta erakundeekin kontrastatzea eta baliozkotzea.

2.12 grafikoa 8. jarduera-eremuan gauzatutako jarduketan bolumena: "Euskal Enplegu Sistemaren Legea", ildo estrategikoen arabera



ILDO ESTRATEGIKOAK	Programatutako jardueren kopurua	Gauzatutako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022
8.1 Euskal enplegu sistemaren legea garatzea eta onartzea	3	3	%100,0 ●
8.JARDUERA-EREMUA, GUZTIRA	3	3	%100,0 ●

2.2.9. Zeharkako eremua: Aukera berdintasuna lan-merkatuan

Enplegu Plan Estrategikoak lan-merkatuan aukera-berdintasuna sustatzera bideratutako eremu estrategiko bat jasotzen du.

2022an egindako azterketari esker, lan-merkatuan genero-berdintasunaren arloan aurrera egitea helburu duten 11 jarduera gauzatu direla adieraz daiteke. Gazteen enpleguaren aldeko 15 ekintza eta 45 urtetik gorako biztanleen enplegua hobetzea helburu duten 4 jarduera egin dira belaunaldi-erreleboko kontratuen bidez. Era berean, enplegu inklusiboaren aldeko 8 neurri eta hizkuntza-berdintasunarekin lotutako 2 neurri gauzatzen ari dira. Programatutako jarduera asko bete dira lan-merkatuko aukera-berdintasunaren eremuan.

¹ Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua 2023ko martxoaren 27an onartu zen.

2. 2022ko emaitza nagusiak

ILDO ESTRATEGIKOAK	Programatutako jardueren kopurua	Gauzaturako jardueren kopurua	Betetze-maila 2022 (%)	
9.1 Genero berdintasuna lan-merkatuan	12	11	%91,7	●
9.2 Gazteen enplegua	17	15	%88,2	●
9.3 45 urtetik gorakoen enplegua	5	4	%80,0	●
9.4 Enplegu inklusiboa	8	8	%100,0	●
9.5 Hizkuntza-berdintasuna	2	2	%100,0	●

Jarraian, 2022an lan-merkatuan berdintasuna lortzera bideratutako ekintzak zehazten dira. X gorri batez markatzen dira 2022an abian jarri ez diren jarduerak.

9.1. ildo estrategikoa: Genero berdintasuna lan-merkatuan

EPE-ko ekintzak		Genero-berdintasunari egindako ekarpena
A.1.1.8	Emakumeen ekintzailtza eta enpresen eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzeari sustatzea	✓
A.1.2.4	Inbertsioa enpleguan eta emakumeengan: 503 emakumeri laguntzea landa- eta hiri-eremuetan 2022 eta 2023 bitartean	✓
A.2.1.2	Gizarte-eragileei lotutako pertsonen prestakuntza handitzea, negozioz kolektiboa hobetzeko, enpleguko, laneko segurtasun eta osasuneko, genero-berdintasuneko, ikuskaritzako eta abarreko politika aktiboen definizioan eta aplikazioan duten zeregina sendotuz	✓
A.2.1.3	Hitzarmen kolektiboetan genero-eragina duten txostenak egitea	✓
A.2.1.4	Berdintasun-batzordeen trebakuntza eta heziketa hobetzeko programa, kalitatezko enplegua lortzeko beste urrats bat bezala	✓
A.2.2.6	Lan ikuskaritzaren kanpainak emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasunaren arloan. Genero-ikuspegia sartzeari segurtasun- eta osasun-kanpainetan	✓
A.2.2.7	Ikuskaritzaren etengabeko prestakuntza bultzatzen jarraitzea, lan-arloan eta segurtasun- eta osasun-arloan genero-berdintasunaren arloan, eta, bereziki, ordainsari-desberdintasunaren gaian, soldata-arraila diagnostikatzeko tresnak maneiatzean eta soldata-auditorian	✓
A.2.3.10	Laneko segurtasun- eta osasun-kanpainetan genero-ikuspegia barne hartzea	✓
A.2.4.1	180 pertsonen kontratazioa sustatzea, enpresei lana eta familia bateragarri egiteko neurrien erabilera sustatzeko laguntza emanez	✓
A.2.4.2	Herritarrek berdintasunaren arloan duten sentsibilizazio-maila handitzea, kalitatezko enplegua lortzeko beste urrats bat baita	✓
A.2.4.3	Maskulinizatutako sektoreetan emakumeen presentzia sustatzea (adibidez, polizia-zerbitzuak)	✗
A.3.1.1	Langabeentzako gaitasun digitalak hobetzea, ekintzailtza eta landa-garapena bultzatzeko eta genero-arrakala murrizteko (2022 eta 2023 bitartean prestatutako 16.582 langabe)	✓

2. 2022ko emaitza nagusiak

9.2. ildo estrategikoa: Gazteen enplegua

EPE-ko ekintzak		Gazteen enpleguari egindako ekarpena
A.1.1.6	Unibertsitateekin lankidetzak-hitzarmenak eta -ekimenak garatzea, laneratzeari, ekintzaitzari eta unibertsitate-eremuan sortutako ekimen ekintzaileei (graduak, graduondokoak eta doktoitzak) buruz sentsibilizatzeko (5.800, Planaren aldirian, urtean 1.450 unibertsitateko ikasle)	✓
A.1.1.7	Gazteek 1.700 enpresa berri garatzen eta abian jartzen laguntzea, euskal administrazioaren tresnen bidez (Lanbide, SPRI, etab.) nahiz beste erakunde eta eragile espezializatu batzuekin hitzartutako tresnen bidez.	✓
A.1.1.9	Gazteentzako proiektu pilotuak, ekintzaitzeta-proiektuak eta mikroenpresak garatzea (166 prestakuntza- eta enplegu-proiektu eta 200 ekintzaitzeta-proiektu eta mikroenpresa)	✓
A.1.1.10	Euskal Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzaitzeta-kultura eta ekintzaitzeta sustatzea (Ikasapresa programa eta Urrats bat programa)	✓
A.1.2.3	Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatutako pertsonen % 30 gutxienez 35 urtetik beherako gazteak direla bermatzea	✓
A.1.5.7	Landa-ingurunean eta itsasertean 400 enplegu sor daitezzen sustatzea, enpresa-espirtua eta ekintzaitzeta sustatuz, enpresa berriak abian jarritik, batez ere gazteenak, eta enpresetan inbertsioak eginez landa-eremuen dibertsifikazio ekonomikorako.	✓
A.4.2.4	20.000 gazteren prestakuntza sustatzea, enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartuz	✓
A.4.2.7	Merkataritza-banaketan esperientzia praktikoa ematea 150 gazteri	✗
A.4.2.14	Lehen sektorean edo nekazaritzako elikagaien enpresetan lan egiten duten pertsonen edo sektorean sartzen diren nekazari gazteen lanbide-prestakuntza hobetzea, ustiatzietan eta nekazaritzako elikagaien enpresetan trukeak eginez	✗
A. 4.2.18 (Lehen A.5.2.5)	Gazteen enplegua. Lehen esperientzia profesionalak administrazio publikoetan.	✓
A.5.2.7 (Lehen A.4.2.19)	Gazteak enpresetan eta erakundeetan eraikuntza- eta eraldaketa-eragile gisa sartzeko, lanerako eta prestakuntza praktikorako inguruneetan gara ditzaketen ikaskuntzari buruzko ikuspegi berrien bidez. Reactivate programa (2021-2024 aldirian sustatutako 800 prestakuntza-programa)	✓
A.5.2.3	Prestakuntza arautuaren ondoren, gazteen laneratzearen jarraipenerako sistemak eta azterlanak indartzea	✓
A.5.2.1	Unibertsitate-hezkuntzako eta lanbide-heziketako azken ikasturteko 5.000 ikasleri hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioko esperientzia praktikoa bat erraztea (urtean 1.250)	✓
A.5.2.2	Unibertsitateko prestakuntzan eredu duala pixkanaka gehitzea	✓
A.5.2.4	460 gazteren kontratazioa sustatzea sektore pribatuko txanda-kontratuen bidez (urtean 115)	✓
A.5.2.6	Gazteen enplegua. Ikerketa-programa	✓
A.5.2.8	Lehen Aukera. Gazteak lan-merkatuan (enpresetan) sartzera bideratutako ekintza, haien enplegarritasuna hobetuz eta haien laneratzea sendotzen lagunduz	✓

2. 2022ko emaitza nagusiak

9.3. ildo estrategikoa: 45 urtetik gorako enplegua

EPE-ko ekintzak		45 urtetik gorako enpleguari egindako ekarpena
A.1.5.4	60 merkataritza-establizimenduren enpresa-transmisioa babestea, belaunaldi-erreleborako eta sektoreko ekintzaitzarako neurri gisa	✓
A.1.5.6	Turismo-enpresen enpresa-transmisioa babestea, belaunaldi-erreleborako eta sektoreko ekintzaitzarako neurri gisa	✓
A.3.3.2	Landa-inguruneetan adinekoei arreta emateari lotutako enplegua sortzen laguntzea; izan ere, biztanleriaren zahartzearen arazoak landa-inguruneari eragiten dio bereziki, auzo batzuk landa-guneetatik isolatuta daudelako	✗
A.4.1.9	Langabezia kronifikatuaren aurka esku hartzeko eredu propioa sustatzea, batez ere iraupen luze langabezia 45-60 urte bitarteko artean	✓
A.5.2.4	460 gazteren kontratazioa sustatzea sektore pribatuko txanda-kontratuen bidez (urtean 115)	✓

9.4. ildo estrategikoa: Enplegu inklusiboa

EPE-ko ekintzak		Enplegu inklusiboari egindako ekarpena
A.1.4.2	Gizarte-ekonomiako enpresetan lan-bazkide mugagabeen oinarria handitzea, bereziki gazteen, emakumeen, desgaitasunen bat duten pertsonen eta/edo laneratzeko zailtasunen kolektiboetan, 800 bazkide berri sartzen lagunduz	✓
A.1.4.4	Gizarte-ekonomiako enpresek, batez ere enpresa txikiak eta gizarteratzearen eremuarekin lotutakoak, kanpoko finantzazioa eskura dezaten erraztea, beren elkarrekin lankidetzan, 120 enpresari finantza-bermeak emanez	✓
A.3.3.8	Bereziki kalteberak diren kolektiboen berronkarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak (2.104 langaberi laguntzea 2022tik 2023ra bitartean)	✓
A.4.1.3	Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen gaikuntza hobetzea, enplegurako zentro berezien eta laneratzeko enpresen jardueri lagunduz, urtean 9.850 lanposturi eutsiz	✓
A.4.1.4	Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden 960 pertsonaren laneratzeari erraztea merkatu arrunteko enpresetan (urtean 240)	✓
A.4.1.7	Gizarteratzeko ibilbideen proiektu pilotuak garatzea 300 onuradunentzat	✓
A.4.1.8	Oarsoaldea, behar handiko eskualde edo lehentasunezko jarduketa-eremua, berrabiaraztea, Bepiztu: Laneratzeko Polorako programaren bidez.	✓
A.4.1.10	Gizarteratzeko sistemen arteko koordinazioa bultzatzea tokiko mahaian bidez	✓

9.5. ildo estrategikoa: Hizkuntza-berdintasuna

EPE-ko ekintzak		Hizkuntza-berdintasunari egindako ekarpena
A.4.2.5	Euskara sustatzea, lanpostuan sartzeko tresna gisa	✓
A.4.1.2	Lanbide Heziketan euskararen ikaskuntza integratzea Lanbideren bidez (langabeak euskalduntzeko hitzarmena; 3.000 langabe planaren aldian)	✓

2. 2022ko emaitza nagusiak

2.3. HELBURUEN BETETZE-MAILA

2.3.1. Helburu orokorrak: 2022ko gauzatze-adierazleak

2022.urtea, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa gauzatzeko bigarren urtea da, eta ezarritako egikaritze-adierazleen beste berrikuspen bat egin da.

2022an, enpleguaren berreskurapenaren, mantentzearen eta sorreraren eta enpleguaren kalitatearen eremua eta hiru trantsizioetako enpleguaren eta prestakuntzaren esparruan egindako aurrerapenak nabarmentzen dira.

1. jarduera-eremua: Enplegua berreskuratzea, mantentzea eta sortzea

Enplegu Planaren helburua enplegua suspertzea, mantentzea eta sortzea sustatzea zen, eta 27.339 enplegu sustatzea zuen helburu. 2022an garatutako jarduketek 29.960 enplegu sustatzea lortu dute, eta zifra hori 2021ean pizgarritutako enpleguaren (13.264 enplegu) oso gaineratik dago. Sustatutako enplegu guztietatik, 21.196 sektore pribatukoak dira, eta 8.764 enplegu publikokoak.

2022an enpresa-ehunari laguntzeko jarduera ugari garatzen jarraitu da. Zehazki, 5.127 enpresari eman zaie laguntza (2021ekoa baino handiagoa ere, 4.015 enpresari). 957 enpresa berri sortzea bultzatu da, eta 3.646 enpresari laguntza eskaini zaie jarduera sendotu eta mantentzeko. 2022an ere 333 berrikuntza-proiektutan inbertitu da.

Enplegu Planaren eremu horren barruan, azpimarratzekoa da Enplegu eta Gizarteratze Zuzendari-tzak gazteei eta ekintzailletza-proiektuei eta mikroenpresei zuzendutako proiektu pilotuak garatu dituela. 2022an, praktiketako onuradunak hartzen dituzten enpresak bilatzeko lan egin da. 135 prestakuntza- eta enplegu-proiektu finantzatu dira, eta 194 ekintzailletza-proiekturi eta mikroenpresei lagundu zaie.

2022an, enplegua berreskuratzearen, mantentzearen eta sortzearen esparruan planteatutako ia egikaritze-adierazle guztiek betetze-maila handia lortu dute. Enpresa berriak sortzeari lotutako adierazlea soilik geratu da aurreikusitako helburutik zertxobait beherago.

2. jarduera-eremua: Enpleguaren kalitatea

2022an, enpleguaren kalitatearen eremuan, aldi baterako kontratazioari eta kontratazio partzialari egindako iruzurrari buruzko 2 kanpaina nabarmentzen dira, eta horren ondorioz 8.760 kontratu mugagabe eta lanaldi osokoak bihurtu dira, lan-ikuskaritzak eskatuta. Era berean, genero-berdintasunaren arloko lan-ikuskaritzako hainbat kanpaina egin dira.

Bestalde, azpimarratu behar da laneko arriskuen prebentzioko 1.206 ordezkariari prestakuntza eman zaiela, eta laneko arriskuen prebentzioko delegatuen % 92,8k Laneko Arriskuen Prebentzio-ko (LAP) prestakuntza izatea lortu dela.

2. 2022ko emaitza nagusiak

Enpleguaren kalitatearen esparruan, 2022an pertsona autonomoak lan-osasunaren arloan prestatzea zen helburua. Eskuragarri dauden datuen arabera, 29 autonomori eman zaie prestakuntza, eta kopuru hori helburu-balioaren azpitik dago (100 pertsona). Adierazle hori da betetze-maila baxua lortzen duena.

3. jarduera eremua: Enplegua eta prestakuntza 3 trantsizioetan: digitala, energetiko-klimatikoa eta demografikoa

Hiru trantsizioetako enpleguaren eta prestakuntzaren arloko helburuei dagokienez, nabarmentzekoa da ahalegin handia egin dela biztanleria landunari zuzendutako prestakuntza-ekintzak abian jartzeko, 3 trantsizioetan gaitasunak eskuratzerantz bideratuta. 23.814 pertsonak parte hartu dute prestakuntza-ekintza mota horietan 2022an.

Zehazki, 10.443 pertsona trebatu dira trantsizio digitalarekin lotutako gaietan, 9.706 pertsona trantsizio energetiko-klimatikoan eta 3.665 pertsona trantsizio sozial eta demografikoan.

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua handia izan arren, ez da lortu 18.297 langabetu gaitasun digitaletan trebatzeko helburu handia betetzea.

4. jarduera eremua: Enplegu eta prestakuntza erresiliente eta inklusiboa

Enplegu eta prestakuntza erresiliente eta inklusiboari dagokionez, nabarmentzekoa da 2022an, 68.423 langilek enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea lortu dela. Prestakuntza eta enplegu-aukerak eskaini nahi dituzten ekintzetan 1.923 pertsonak parte hartu dute, eta adierazle hori aurreikusitako balioaren azpitik geratu da.

Nabarmendu behar da desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden 9.608 pertsonen enplegua babestu dela enplegu-zentro berezietan eta laneratzeko enpresetan egindako jardueren bidez. Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak aurreikusitako baino gutxiago sartu dira merkatu arruntean: 136 pertsona sartu ziren 2022an.

Azpimarratzekoa da 188 gaztek parte hartu dutela administrazio publikoetan lehen esperientzia profesionalak eskaintzen dituen Gazte Enplegua programan. Bestalde, 215 prestakuntza-plan adostu dira enpresarekin, eta 155 beka-hitzarmen sinatu dira, gazteak enpresetan eraldaketa-eragile gisa txertatzeko, Reactivate programan parte hartuz.

5. jarduera-eremua: Enplegurako Prestakuntzarako Euskal eredu

Enplegurako Prestakuntzako Euskal Ereduaren esparruan, azpimarratu behar da profesionalen defizita aurreikusi, babestu eta detektatzeko ekintzak egiten jarraitzen dela, prospektiba behatzeko lana sustatuz Future Lan tresnaren bidez, adituekin kontrastatuz okupazio berriak eta beharren profilak, eta kontratazioaren bilakaerari buruzko informazio estatistikoa emanez.

Jarduera-eremu horren barruan, adierazi behar da hezkuntza-mundutik lan-mundura trantsizio esperientzia praktikoa bat erraztu nahi izan zaiela unibertsitateko eta lanbide-heziketako azken mailako ikasleei. 2022an, 785 ikaslek parte hartu dute Lanbideren Prestakuntza Zerbitzuaren Hezibi programan. Programa horri esker, gutxienez urtebeteko prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua formalizatu ahal izan da.

2. 2022ko emaitza nagusiak

2022an, dirulaguntzak eman zaizkie hiru unibertsitateei (EHU, Mondragon, Deustu), laneratzeari eta ekintzaitzari buruz sentsibilizatzeko eta unibertsitatearen esparruan sortutako ekimen ekintzaileei laguntzeko (graduak, graduondokoak eta doktoretzak). Hala ere, ez dago ikasleen artean izan duen eraginari buruzko daturik.

6. jarduera-eremua: Lanbide hobetzen

2022an zehar, lehen aipatu den bezala, Lanbidek lanean jarraitu du arreta-eredu berria ezartzeko. Hala ere, oraindik ez du eredia ezarri bere bulego-sarean. Lanbidek prestazioetan esku hartzeko eta arreta emateko eredu berria izatea aurreikusten du Lanbideren 10 bulegorentzat, eta 6 bulegotan politika aktiboen eta inklusioaren esku-hartze eta arretarako eredia ezartzea 2023an.

Hasiera batean, Lanbidek enpresei zuzendutako zerbitzu-zorro aurreratua handitzeko bidean aurrera egitea aurreikusi zuen, baina azkenean 2023rako planifikatuta geratu den lana da, Lanbideren antolaketa-eraldaketarako proiektuaren esparruan garatzekoa.

Bestalde, adierazi behar da Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak 2022an zehar Euskadin Enplegurako Orientazio, Ekintzaitza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroen Sarea diseinatzeko lan egin duela. Azpimarratu behar da, aurrera egin den arren, ekintzak oraindik ez direla amaitu.

7. jarduera-eremua: Enplegu-politika aktiboen ebaluazioa

Lanbidek programen ebaluazioen emaitzak eta informazioa biltzeko eredu bat diseinatu du 2022an. Era berean, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen urteko ebaluazioak egin ditu 2022an. Enplegu Zuzendaritzak ere aurrera egin du 2022an belaunaldi-erreleboko baliabideei, arrakastareduerari eta proiektu pilotuei buruzko azterlanean.

8. jarduera-eremua: Euskal Enplegu Sistemaren Legea

Azkenik, Enplegu Planak Euskal Enplegu Sistemaren Legea garatzea eta onartzea zuen helburu. 2022an, lege-proiektua funtsezko eragile eta erakundeekin alderatu eta baliozkotu da. Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua 2023ko martxoan onartu da.

2. 2022ko emaitza nagusiak

2022an % 50etik beherako betetze-maila lortu duten 5 adierazleen eta ezarritako helburua betetzeari buruzko informaziorik lortu ez duten 2 adierazleen jarraipen berezia egitea gomendatzen da

Gauzatze-adierazleak berrikusita, ondoriozta daiteke hurrengo urteetan jarraipena egin behar zaiola gauzatze-adierazle hauen betetze-mailari, 2022an aurreikusitako balioaren % 50etik beherako betetze-maila lortu baita:

- Lan-osasunari buruz prestatutako pertsona autonomoen kopurua
- Gazte Enpleguan parte hartu duten gazteen kopurua. Lehen esperientzia proesionalak administrazio publikoetan
- Ezarritako arreta-eredu berria duten Lanbideren bulegoen kopurua

Era berean, adierazle hauek betetzen laguntzen duten jarduketan jarraipen espaziala egitea gomendatzen da:

- Gizarteratzeko ibilbideen proiektu pilotuaren onuradunen kopurua
- Laneratzeari, ekintzaitzari eta ekimen ekintzaileak babesteari buruz sentsibilizatze-ko ekimenetan parte hartu duten unibertsitate-ikasleen kopurua

2. 2022ko emaitza nagusiak

2022KO GAUZATZE ADIERAZLEAK

2022KO GAUZATZE-ADIERAZLEEN JARRAIPENA					
JARDUERA-EREMUAK	Gauzatze-adierazleak	2022ko helburua	2022ko balioa	Betetze maila	
ENPLEGUA BERRESKURATzea, MANTENTZEA ETA SORTZEA	Pizgarria jaso duen enplegua guztira	27.339 enplegu	29.960	%109,6	●
	Enpleguari eustea	14.556	20.489	%140,8	●
	Enplegu berria	12.783	9.471	%74,1	●
	Sektore pribatuan pizgarria jaso duen enplegua	25.474	21.196	%83,2	●
	Enplegu publikoa (autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorra)	1.865	8.764	%469,9	●
	Lagundutako enpresak, guztira	4.697 enpresa	5.127	%109,1	●
	Enpresa sortu berriak	1.412	957	%67,7	●
	Enpresak sendotzeko eta mantentzeko laguntza	3.435	3.646	%106,1	●
	Berrikuntza-proiektuak babestea	295	333	%112,9	●
ENPLEGUAREN KALITATEA	Aldi baterako kontratazioaren eta kontratazio partzialaren iruzurrari eta bereziki sentikorrak diren lan-baldintzei, hala nola ordutegia eta lanaldia, buruzko kanpainak	Kanpainak egitea	Egindako ekintza	%100,0	●
	Prebentzio-ordetzari laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza-ekintzak	>90% langile prestatuak	92,76%	%103,1	●
	Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko kontzientziazio-kanpainak	Kanpainak egitea	Kanpainak egitea	%100,0	●
	Lan-osasunari buruz prestatutako pertsona autonomoen kopurua	100 pertsona	29	%29,0	●
ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA HIRU TRANSIZIOETAN	3 trantsizioetan prestakuntza hobetu duten langabeen kopurua	27.968 pertsona	23.814	%85,1	●
	Trantsizio digitala	18.297	10.443	%57,1	●
	Trantsizio energetiko-klimatikoa	4.750	9.706	%204,3	●
	Trantsizio sozial eta demografikoa	4.921	3.665	%74,5	●
ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	Prestakuntza jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	62.554 pertsona	68.423	%109,4	●
	Enplegu eta prestakuntzako jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	2.703	1.923	%71,1	●
	Beste prestakuntza-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonen kopurua	59.851	66.500	%111,1	●
	Enplegu Zentro Berezien eta Laneratze Enpresen jarduerak babestuz gaikuntza hobetu duten desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen kopurua	9.850 pertsona	9.608 pertsona	%97,5	●

2. 2022ko emaitza nagusiak

2022KO GAUZATZE-ADIERAZLEEN JARRAIPENA					
JARDUERA-EREMUAK	Gauzatze-adierazleak	2022ko helburua	2022ko balioa	Betetze maila	
	Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen kopurua, merkatu arrunteko enpresetan laneratuta	240 pertsona	136	%56,7	●
	Gizarteratzeko ibilbideen proiektu pilotuaren onuradunen kopurua	--	Daturik gabe	--	
	Gazte-enpleguan parte hartzen duten gazteen kopurua. Administrazio publikoetako lehen esperientzia profesionalak	403 pertsona	188	%46,7	●
	Reactivate prestakuntza-programen kopurua	166 gaztek parte hartu dute programetan	155 gaztek parte hartu dute programetan	%93,3	●
ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL EREDUA	Profesionalen defizita aurreikusteko, aztertze eta detektatzeko ekintzak	Egindako ekintza	Egindako ekintza	%100,0	●
	Hezkuntza- eta lan-trantsizioko esperientzia praktiko batean parte hartu duten unibertsitate-hezkuntzako eta LHko azken ikasturteko ikasleen kopurua	1.250 pertsona	785 pertsona	%62,8	●
	Laneratzeari, ekintzailatzari eta ekimen ekintzaileei laguntzeari buruz sentsibilizatze ekimenetan parte hartu duten unibertsitateko ikasleen kopurua	1.450 pertsona	(Datu ez-erabilgarri)	--	
LANBIDE HOBETZEN	Arreta-eredu berria ezarrita duten bulegoen kopurua	--	0	%0,0	●
	Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa handitzea	Egindako ekintza	Egindako ekintza partziala	%50,0	●
	Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroen Sarea	Egindako ekintza	Egindako ekintza partziala	%50,0	●
ENPLEGU POLITIKA AKTIBOEN EBALUAZIOA	Programen ebaluazioen emaitzak eta informazioa biltzeko eredu bat diseinatzea	Egindako ekintza	Egindako ekintza	%100,0	●
	Programak ebaluatzeko proiektuak ezartzea	Egindako ekintza	Egindako ekintza partziala	%50,0	●
	Belaunaldi-erleleboko baliabideei, arrakasta-ereduei eta proiektu pilotuei buruzko azterlana	Egindako ekintza	Egindako ekintza	%100,0	●
EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	Euskal Enplegu Sistemaren Legea garatzea eta onartzea	Egindako ekintza	Egindako ekintza partziala	%90,0	●

2. 2022ko emaitza nagusiak

2021-2022 ALDIKO GAUZATZE-ADIERAZLEAK

2022KO GAUZATZE-ADIERAZLEEN JARRAIPENA								
JARDUERA-EREMUAK	Gauzatze-adierazleak	2021-2024 helburua	2021ko balioa	2022ko balioa	2021-2022ko balioa	2021-2022ko betetze maila		2024ko helburuekin izandako aurrerapen-maila
ENPLEGUA BERRESKURATzea, MANTENTzea ETA SORTzea	Pizgarria jaso duen enplegua guztira	103.584 lanpostu	24.275	29.960	54.235	% 110,5	●	% 52,4
	Enpleguari eustea	21.922	14.026	20.489	34.515	% 127,7	●	% 157,4
	Enplegu berria	81.662	10.249	9.471	19.720	% 89,4	●	% 24,1
	Sektore pribatuan pizgarria jaso duen enplegua	94.929	20.287	21.196	41.483	% 93,0	●	% 43,7
	Enplegu publikoa (autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorra)	8.655	3.988	8.764	12.752	% 284,0	●	% 147,34
	Lagundutako enpresak, guztira	23.796 enpresa	3.915	5.127	9.041	% 99,9	●	% 38,0
	Enpresa sortu berriak	10.636	837	957	1.793	% 69,7	●	% 16,9
	Enpresak sendotzeko eta mantentzeko laguntza	13.385	3.078	3.646	6.725	% 101,4	●	% 50,2
	Berrikuntza-proiektuak babestea	1.715	553	333	886	% 152,8	●	% 51,7
ENPLEGUAREN KALITATEA	Aldi baterako kontratazioaren eta kontratazio partzialaren iruzurrari eta bereziki sentikorrek diren lan-baldintzei, hala nola ordutegia eta lanaldia, buruzko kanpainak	Kanpainak egitea	Egindako ekintza	Egindako ekintza	Egindako ekintza	% 100	●	% 100
	Prebentzio-ordezkariek laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza-ekintzak	>90% prestatutako langilean	96,3%	92,76%	Helburua bete da	% 100	●	% 100
	Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko kontzientziazio-kanpainak	Kanpainak egitea	Egindako ekintza	Egindako ekintza	Egindako ekintza	% 100	●	% 100
	Lan-osasunari buruz prestatutako pertsona autonomoen kopurua	550 pertsona	131 pertsona	29	160	% 106,7	●	% 29,1

2. 2022ko emaitza nagusiak

2022KO GAUZATZE-ADIERAZLEEN JARRAIPENA								
JARDUERA-EREMUAK	Gauzatze-adierazleak	2021-2024 helburua	2021ko balioa	2022ko balioa	2021-2022ko balioa	2021-2022ko betetze maila		2024ko helburuekin izandako aurrerapen-maila
ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA HIRU TRANTSIZIOETAN	3 trantsizioetan prestakuntza hobetu duten langabeen kopurua	88.613	1.661	23.814	25.475	% 63,0	●	% 28,7
	Trantsizio digitala	54.497	791	10.443	11.234	% 48,6	●	% 20,6
	Trantsizio energetiko-klimatikoa	19.050	103	9.706	9.809	% 103,3	●	% 51,5
	Trantsizio sozial eta demografikoa	15.066	767	3.665	4.432	% 56,8	●	% 29,4
ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	Prestakuntza jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	230.531	77.807	68.423	146.230	% 132,0	●	% 63,4
	Enplegu eta prestakuntzako jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	9.758	866	1.923	2.789	% 55,8	●	% 28,6
	Beste prestakuntza-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonen kopurua	220.773	76.941	66.500	143.441	% 135,6	●	% 65,0
	Enplegu Zentro Berezien eta Laneratzeko Enpresen jarduerak babestuz gaikuntza hobetu duten desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen kopurua	9.900 pertsona	10.038	9.608	9.823	% 99,7	●	% 99,2
	Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen kopurua, merkatu arrunteko enpresetan laneratuta	870 pertsona	139	136	275	% 57,3	●	% 31,6
	Gizarteratzeko ibilbideen proiektu pilotuaren onuradunen kopurua	300 pertsona	--	(Datu ez-erabilgarri)	--	-	--	--
	Gazte-enpleguan parte hartzen duten gazteen kopurua. Administrazio publikoetako lehen esperientzia profesionalak	493 gazte parte-hartzaile	0	188	188	% 46,7	●	% 38,1
	Reactivate prestakuntza-programen kopurua	800 gaztek parte hartu dute programetan	208	155	363	% 99,2	●	% 45,4

2. 2022ko emaitza nagusiak

2022KO GAUZATZE-ADIERAZLEEN JARRAIPENA								
JARDUERA-EREMUAK	Gauzatze-adierazleak	2021-2024 helburua	2021ko balioa	2022ko balioa	2021-2022ko balioa	2021-2022ko betetze maila		2024ko helburuekin izandako aurrerapen-maila
ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARA KO EUSKAL EREDUA	Profesionalen defizita aurreikusteko, aztertzeko eta detektatzeko ekintzak	Egindako ekintza	--	Egindako ekintza	Egindako ekintza	% 100	●	% 100
	Hezkuntza- eta lan-trantsizioko esperientzia praktikoa batean parte hartu duten unibertsitate-hezkuntzako eta LHko azken ikasturteko ikasleen kopurua	4.750 pertsona	693	785	1.478	% 59,1	●	% 31,1
	Laneratzeari, ekintzaitzari eta ekimen ekintzaileei laguntzeari buruz sensibilizatzeko ekimenetan parte hartu duten unibertsitateko ikasleen kopurua	5.800 pertsona	1.450	(Datu ez-erabilgarri)	--	--	--	--
LANBIDE HOBETZEN	Arreta-eredu berria ezarrita duten bulegoen kopurua	46 bulego	--	0	0	%0,0	●	% 0
	Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa handitzea	Egindako ekintza	--	Egindako ekintza partziala	Egindako ekintza partziala	%50,0	●	% 50,0
	Enplegurako Orientazio, Ekintzaitza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroen Sarea	Egindako ekintza	--	Egindako ekintza partziala	Egindako ekintza partziala	% 50,0	●	% 50,0
ENPLEGU POLITIKA AKTIBOEN EBALUAZIOA	Programen ebaluazioen emaitzak eta informazioa biltzeko eredu bat diseinatzea	Egindako ekintza	--	Egindako ekintza	Egindako ekintza	% 100,0	●	% 100,0
	Programak ebaluatzeko proiektuak ezartzea	Egindako ekintza	--	Egindako ekintza partziala	Egindako ekintza partziala	% 50,0	●	% 50,0
	Belaunaldi-erreeboko baliabideei, arrakasta-ereduei eta proiektu pilotuei buruzko azterlana	Egindako ekintza	--	Egindako ekintza	Egindako ekintza	% 100,0	●	% 100,0
EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	Euskal Enplegu Sistemaren Legea garatzea eta onartzea	Egindako ekintza	--	Egindako ekintza partziala	Egindako ekintza partziala	% 50,0	●	% 50,0

2. 2022ko emaitza nagusiak

2.3.2. **Inpaktu-adierazleen aurrerapena**

2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoak lan-merkatuari buruzko inpaktu-adierazleen jarraipena egitea ere planteatzen zuen. 2022an langabezia-tasa % 8,5era murriztu da urte amaieran. Proposatutako gainerako inpaktu-adierazleen jarraipena egiten jarraitzea gomendatzen da urtero.

2022KO INPAKTU-ADIERAZLEEN JARRAIPENA						
JARDUERA-EREMUA	Inpaktu-adierazleak	2024rako helburuak	2019	2020	2021	2022
ENPLEGUA BERRESKURATZEA, MANTENTZEA ETA SORTZEA	Langabezia-tasa murriztea, pandemia aurreko tasa hobetuz	% 10etik beherako tasa aldi osoan	% 9,8 (BJA 2019)	% 10,6 (BJA 2020)	% 10,0 (BJA 2021)	% 8,5 (BJA 2022)
ENPLEGUAREN KALITATEA	Biztanleria landunaren behin-behinekotasun-tasa murrizten laguntzea	% 20tik beherako tasa	% 29,9 (BJA IV-2019)	% 27,4 (BJA IV-2020)	% 27,1 (BJA IV-2021)	% 18,5 (BJA IV-2022)
	Enplegu publikoan behin-behinekotasun-tasa murrizten laguntzea	% 30etik beherako tasa	% 36,8 (BAI 2019)	% 38,2 (BAI 2020)	% 42,4 (BAI 2021)	% 46,6 (BAI 2022)
	Biztanleria landunaren partzialtasun-tasa murrizten laguntzea	% 10etik beherako tasa	% 17,5 (BAI IV-2019)	% 15,8 (BAI IV-2020)	% 16,7 (BAI IV-2021)	% 15,3 (BAI IV-2022)
	Lan-istripu hilgarrien eta gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasa murrizten laguntzea gizonengan eta emakumeengan	Intzidentzia-tasa % 10 jaistea	2019ko intzidentzia tasa Gizonen LI hilgarriak: %0,05,1 Emakumeen LI hilgarriak: % 0,007 GP gizonak: % 2,8 GP emakumeak: % 1,5 (OSALAN 2019)	--	--	2022ko intzidentzia-tasak Gizonen LI hilgarriak: %0,058 Emakumeen LI hilgarriak: %0,010 Gizonen LH: %2,4 Emakumeen LH: %1,5 (OSALAN 2019)
Negoziazio kolektiboaren estaldura duten langileen ehuneko handitzen laguntzea	Indarrean dauden hitzarmenak (eguneratuak) dituzten langileen % 65	Langileen % 58,2 indarrean dauden hitzarmenekin (CRL-LHK, 2019)	Langileen % 56,8 indarrean dauden hitzarmenekin (CRL-LHK, 2020)	Langileen % 46,7 indarrean dauden hitzarmenekin (CRL-LHK, 2021)	Langileen % 53,8 indarrean dauden hitzarmenekin (CRL-LHK, 2022)	
AUKERA BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN	Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala erdira murrizten laguntzea	% 10etik behera	% 19,5 Soldata-arrakala. EAeko langile bakoitzeko urteko batez besteko irabaziaren arabera (INE, Soldata Egituraren Inkesta, 2019)	% 17,9 Soldata-arrakala. EAeko langile bakoitzeko urteko batez besteko irabaziaren arabera (INE, Soldata Egituraren Inkesta, 2020)	2021eko urteko batez besteko irabazia ez dago eskuragarri INE-en	2022ko urteko batez besteko irabazia ez dago eskuragarri INE-en
	Emakume landunen behin-behinekotasun tasa murrizten laguntzea	% 25etik behera	% 33,1 (BJA 2019)	% 34 (BJA 2020)	% 32,1 (BJA 2021)	% 29,4 (BJA 2022)
	Emakume landunen partzialtasun-tasa murrizten laguntzea	% 17tik behera	% 27,2 (BAI 2019)	% 26,4 (BAI 2020)	% 24,5 (BAI 2020)	% 24,4 (BAI 2022)
	Gazteen langabezia-tasa murrizten laguntzea, EB-27rekin bat eginez	% 15	% 22,2 16-24 urteko gazteen langabezia-tasa (BJA IV-2019)	% 23,3 16-24 urteko gazteen langabezia-tasa (BJA IV-2020)*	% 20,9 16-24 urteko gazteen langabezia-tasa (BJA IV-2021)	% 19,6 16-24 urteko gazteen langabezia-tasa (BJA IV-2022)

2. 2022ko emaitza nagusiak

	Iraupen luzeko langabezia-tasa murrizten laguntzea, EB-27rekin bat eginez	% 2,5	% 4,16 (Mikrodatuak, Eustat, IV-2019)	% 5,23 (Mikrodatuak, Eustat, IV-2020)	% 5,17 (Mikrodatuak, Eustat, IV-2021)	% 3,86 (Mikrodatuak, Eustat, IV-2022)
--	---	-------	--	--	--	--

2.4. AURREKONTUAREN GAUZATZE-MAILA

2022an 442 milioi euroko gastu globala gauzatu da Enplegu Plan Estrategikoan

2022an, Enplegu Plan Estrategikoak 442 milioi euroko gastua egin duela kalkulatu da. Eskura dagoen informazioa erreferentziatzat hartuta, programatutako aurrekontuaren* % 89 exekutatzea lortu dela uste da.

JARDUERA-EREMUAK	PROGRAMATUTAKO AURREKONTUA 2022(€) (2)	GAUZATUTAKO AURREKONTUA 2022 (€) (3)	2022ko betetze-maila 2022ko programazioaren gainean (%) (4=3/2)
1. ENPLEGUA BERRESKURATZEA, MANTENTZEA ETA SORTZEA	266.953.366,83€	249.054.631,43€	% 95,2
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	5.018.045,0€	3.113.088,3€	% 62,0
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTZISIOETAN: DIGITALA, ENERGETIKO-KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	44.142.064,35€	26.125.842,78€	% 59,2
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	150.062.108,43€	139.227.630,42€	% 92,8
5. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL EREDUA	25.767.019,45€	23.515.175,22€	% 91,3
6. LANBIDE HOBETZEN 7. ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA 8. EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	7.981.434,00€	1.326.623,0 €	% 16,6
GUZTIRA	499.924.038,06€	442.362.991,10€	% 89,4

* Aurrekontuaren gauzatze-mailaren kalkuluan, ez dira 5 jarduketa sartu, baina gauzatutako aurrekontuari buruzko informaziorik ez da lortu.

2. 2022ko emaitza nagusiak

2021-2022 aldian 760 milioi euroko gastu globala gauzatu da Enplegu Plan Estrategikoan

EPE gauzatu den bi urteetan, 2021ean eta 2022an, 760 milioi euroko gastu globala gauzatu da, hau da, 2021-2024 aldirako EPEren aurrekontu-zuzkidura osoaren % 37. Beharrezkoa da exekuzio-erritmoa hobetzea aurreikusitako aurrekontu-zuzkiduraren gastua betetzeko.

JARDUERA-EREMUAK	AURREKONTU-ZUZKIDURA 2021-2024 (1)	GAUZATUTAKO AURREKONTUA 2021-2022 (€) (3)	Programazioaren gaineko gauzatzemaila 2021-2024 (%) (5=3/1)
1. ENPLEGUA BERRESKURATZEA, MANTENTZEA ETA SORTZEA	1.252.779.559€	426.814.350€	%34,1
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	18.906.000€	5.799.944€	%30,7
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTZISIOETAN: DIGITALA, ENERGETIKO-KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	166.105.473€	39.852.763€	%24,0
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	510.370.478€	255.968.657€	%50,2
5. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL EREDUA	72.713.918€	29.739.802€	%40,9
6. LANBIDE HOBETZEN 7. ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA 8. EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGEA	50.505.000€	1.674.922,0 €	%3,3
GUZTIRA	2.071.380.428 €	759.850.439 €	%36,7



3.


BALORAZIO OROKORRA

3. Balorazio orokorra

Balorazio orokor gisa, taula honetan Enplegu Plan Estrategikoaren indarraldiko bigarren urtearen jarraipena egiteko planteatutako hiru ebaluazio-irizpideen betetze-maila (jarduketan gauzatze-maila, aurrekontuaren gauzatze-maila eta helburuen betetze-maila) aurkezten da, 2022ko datuekin.




2022ko jarduketan gauzatze-maila

Egindakoak
82%

2022an 126 jarduera egin dira Enplegu Plan Estrategikoan. Betetze-maila **altua** izan da, % 82koa.





2022ko aurrekontuaren gauzatze-maila

Bai
89%

2022an 442 milioi euroko gastu globala egikaritu da Enplegu Plan Estrategikoan. Programatutako aurrekontuaren % 89 gauzatzea lortu da. Aurrekontuaren betetze-maila **altua** izan da.




2021-2022 aurrekontu-aurrerapenaren maila 2024tik

Bai
74%


2021-2022 bitartean 760 milioi euroko gastu globala gauzatu da, hau da, EPEren guztizko aurrekontu-zuzkiduraren %37. Hala ere, hasierako aurrekontuaren tarteko exekuzioari (% 50) dagokionez, % 74 exekutatzen da.




3. Balorazio orokorra




2022ko gauzatze-helburuak



2022ko helburuen betetze-maila



2021-2022 helburuen aurrerapen-maila 2024tik





A. Eranskina

**2022AN
GARATUTAKO
EKINTZEN IKUSPEGI
XEHATUA**

A. Eranskina. 2022an garatutako ekintzan ikuspegi xehatua

A.1. 1. JARDUERA-EREMUA: ENPLEGUA BERRESKURATZEA, MANTENTZEA ETA SORTZEA**A.1.1. 1.1. Ildo estrategikoa: Ekintzailtza sustatzea eta enpresak sendotzea**

EKINTZAK		Arduraduna	Egindako jarduna/	Gauzatze-maila	2022ko mugari garrantzitsuak	2022ko aurrekontu egikaritia	2022ko adierazleak
A.1.1.1	1.200 mikroenpresa eta enpresa txiki berri garatzen eta abian jartzen laguntzea, euskal administrazioaren tresnen edo beste eragile batzuekin lankidetzan emandako zerbitzuen bidez	Lanbide	Bai	Guztira	<ul style="list-style-type: none"> Lanbideren Sustapen Zerbitzuaren ekintzailtzarako (Sorkuntza) laguntzak: 684 onuradun 	1.495.087,5 €	<ul style="list-style-type: none"> Enpresa-ideiaren garapenean lagundutako enpresa-ekimenen sustatzaileen kopurua: 355 Enpresa-proiektua abian jartzean lagundutako enpresa-ekimenen sustatzaileen kopurua: 150 Beren enpresaren establezimenduan lagundutako auto-enplegatuen kopurua: 179 Ekintzaileei laguntzeko eta tutoretza emateko erakunde laguntzaileen kopurua: 26
A.1.1.2	2.400 mikroenpresa eta enpresa txiki berriren sendotzea erraztea, enpresa sortu berrien sustapena, funtzionamendua eta kudeaketa bultzatuz	Lanbide	Bai	Guztira	<ul style="list-style-type: none"> Lanbideren Sustapen Zerbitzuaren ekintzailtzarako (sendotzeko) laguntzak: 594 onuradun 	664.950,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Enpresa sendotzeko laguntza jaso duten auto-enplegatuen kopurua: 594
A.1.1.3	Krisi-garaian enplegua suntsitzea saihesteko sistemak babestea (aldi baterako lan-erregulazioen osagarriak eta txanda-kontratuen osagarriak, etab.)	Lanbide	Bai	Partziala	<ul style="list-style-type: none"> ABEEE egoeran dauden pertsonentzako ezohiko laguntzak. Aurreko ekitaldietatik hartutako betebeharrak 	712.294,00 €	
